# INMERSIONES XII

VITORIA-GASTEIZ

ARTISTA SORTU BERRIEN XII. BILTZARRA | 2019KO AZAROAREN 28, 29 ETA 30A

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO · KULTURA SAILA · DEPARTAMENTO DE CULTURA · eremuak · AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO · Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz · Vitoria-Gasteizko Udala · Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA · atiza · INMERSIONES KULTUR ELKARTEA • ASOCIACIÓN CULTURAL



## ETORKIZUNEKO ARTEA ARTEAREN ETORKIZUNA



Paula Estevez

## INMERSIONES-I BURUZ

**Inmersiones** Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroako artista berrien biltzar bat da, 2008tik egiten dena Vitoria-Gasteizen, azaroko azkenetatik abenduko lehen egunetara. Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den ezaugarri hauetako topaketa bakarra da, eta helburu nagusia du gure inguruneko artistak bistarazi eta ezagutzera ematea.





Jorge Salvador



Susana Viñolo

## 2019KO GAIA

**Artearen etorkizunari edo etorkizuneko arteari** buruzko arazoa oharpen zertxobait paradoxiko baina alferrikako batez konpontzen da: gaur, orainaldian , ari gara bizitzen, hain zuzen, duela bi, hamar, edo ehun mila urteko artearen etorkizuna, iragandako edozein garaitako artearen etorkizuna. Hortik ondorioztа dezakegu etorkizuneko artea, guk zati oso txiki bat baizik ezagutuko ez duguna, gure orainaldi iragankor eta nahaskorretik eratorriko dela, orainaldiak aurrera egin hala.

Inmersiones 2019k etorkizunerako proiekzioaren ikuspegitik erakutsi nahi du gure testuinguruko artisten egungo lana, izan teoriko eta/edo praktikoa, izan norbanakoarena edo/eta arrotza.


**EDITORIALA** ▸ 3. or

**“EDUCACCIONES”** ▸ 4. or

**HITZALDIAK & EKINTZAK** ▸ 6. or

**ARGAZKI LEHIAKETA** ▸ 14. or

**IREKITZE-KONFERENTZIA** ▸ 5. or

**JARDUERA PARALELOAK** ▸ 14. or

**KONTAKETA LEHIAKETA ETA ILUSTRAZIOAK** ▸ 12. or

**INMERSIONES XII PROGRAMA** ▸ 16. or




## KREDITUAK

- **Talde motorra**
  Asociación Inmersiones
- **Komisaritza**
  Colectivo Redil
- **Produkzioa**
  Cristina Arrázola
- **Irudia, diseinua eta maketazioa**
  Ibon Sáenz de Olazagoitia
- **Educacciones**
  Anabel Quincoces
- **Argazkiak**
  Jorge Salvador
- **Itzulpenak**
  Iñaki López de Luzuriaga
- **Ikus-entzunezkoak eta bideoa**
  Eneka Aranzabal
  Jon Mikel Rodríguez Arrazola


- **Creative Commons lizentzia**
  creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/

  Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Espainia. Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 España



- **Inprenta**
  Noticias de Navarra
- **ISBN**
  978-84-09-16740-1
- **Lege-Gordailua**
  VI-1134/2019


## PROGRAMA

### OSTEGUNA 28

19:30 • ZAS Kultur (Corre, 84)

- "Inmersiones 2019" egunkariaren aurkezpena
- **Hitzaldia**
  *"Caffeina d'Europa"* • Francisco Javier San Martín

### OSTIRALA 29

19:30 • ZAS Kultur (Corre, 84)

- Erakusketen irekiera eta sarien banaketa lehiaketaren irabazleei
- "Etorkizuneko artea. Artearen etorkizuna" argazki lehiaketaren erakusketa
- "Educacciones" erakusketa

### LARUNBATA 30

10:00 • Ortzai teatro (Pinto, 39)

- **Txostenak**
  - Mikel Arbiza
  - Alizée Armet
  - Juan Pablo Orduñez
  - Izaro Sola Gainza
  - Pablo Martinez Garrido
  - Amaia Molinet
  - Irati Inoriza
  - Camilo Torres Zorrilla
- **Ekintzak**
  - Javier Rodríguez Pérez-Curiel
  - Markel Cormenzana & Raquel Mora
  - Angela Milano & Koldo Arostegui
- **Bazkari kolektiboa**
  15:00 • ZAS Kultur
- **Solasaldia**
  17:00 • Zas Kultur
  Etorkizuneko artea. Artearen etorkizuna

## PARTE-HARTZAILEAK

- Amaia Molinet
- Juan Pablo Orduñez/Mawa Tres
- Irati Inoriza
- Javier Rodríguez Pérez-Curiel
- Mikel Arbiza
- Izaro Sola Gainza
- Raquel Mora
- Markel Cormenzana
- Alizée Armet
- Pablo Martínez Garrido
- Camilo Torres Zorrilla
- Ángela Millano
- Koldo Arostegui
- Susana Viñolo
- Paula Estévez
- Jorge Salvador
- Nerea Lekuona
- Sofía Moreno
- Jorge Luis Albeniz
- Ramón Quanta
- Sofía Neves
- Mariana Unda
- Mikel Erkiaga
- Yohnattan Mignot
- Edurne Herrán
- Enrique Flores
- Mary Zurbano
- Ernesto Iriarte
- Maite Choya
- Joxean Olazagoitia
- Ana De Vicente
- Virginia Lekuona
- Eloísa Montoya
- Iñaki Larrimbe
- Rubén Díaz de Corcuera
- Colectivo Redil
- Maite Markuerkiaga
- Ibon Sáenz de Olazagoitia
- Anabel Quincoces
- Eneka Aranzábal
- Arturo/fito Rodríguez Bornaetxea
- Cristina Arrazola-Oñate
- Iker Fidalgo
- Laia Rodriguez Barinaga
- Pili Aguado
- Josune Urrutia
- Natxo Rodríguez Arkaute
- Iñaki López de Luzuriaga
- Enrique Flores
- Terri Florido
- Jon Mikel Rodríguez


## ESKERRAK

- Zas Kultur Espazioa
- Ortzai Teatro
- Eduardo Soto
- Jon Arrieta
- Eillin Tynan
- Eduardo Ochoa de Aspuru
- Teresa Portugal
- Marije Ibargutxi
- IES Ekialdea BHI
- Urkide Ikastetxea
- Egibide-Jesús Obrero
- Corazonistas de Vitoria-Gasteiz



► **Ilustrazioa:** Janire Orduna

# EDITORIALA

## INMERSIONES 2019

Asko hitz egiten da artearen orainaldiaz. Eta asko hitz egin da haren iraganari buruz. Eta horretan gabiltza oraindik ere. Artearen etorkizunak, ordea, ez gaitu hainbeste kezkatzen. Edo beharbada bai, baina ez diogu arreta gehiegi jartzen, ez ohi dugu horren gainean teorizatzen. Horregatik, zer pentsatu ematen du Inmersiones taldea oraintxe, egun hauetan, martxan jartzen ari den proposamena.

Gogora dezagun elkarte horrek urtero antolatzen duela jendaurreko biltzar ireki bat. Topagune bat da, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroan sortzen ari diren artisten ideien elkartrukerako. Hitzordu hau 2007. urtetik egiten da Gasteizen, eta "Inmersiones" deitzen da. Haren helburua nagusia da lurralde hauetan egosten ari den oinarrizko sorkuntza bistaratzea. Ez dago "Inmersiones"en antzeko jarduerarik.

Urtean-urtean, gainera, ekimena aldatu, itxuraldatu egiten da eta, gainera, gai jakin bati heltzen dio, urtero ere desberdina dena. Aurten, "Inmersiones"ek artearen etorkizunari buruz gogoeta egitera zirikatu nahi gaitu. "Inmersiones 2019"k, laburbilduz, itzalpean jardun ohi duen Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroako artisten taldeari proposatzen dio udazkeneko egun batzuetan Gasteizen azaleratzea, etorkizuneko arte edo artearen etorkizunari buruzko irudimen ariketa aske eta bizkorgarri honetan parte har dezan. Eta deialdi laukoitz baten bidez egiten dute.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroako arte garaikideari buruzko ponentzien aurkezpena: biltzarra. Jarduera hori beti egin da "Inmersiones"en, sortu zenetik. Hautatutako eragileek beren proiektuak jendaurrean aurkezteko konpromisoa hartzen dute Gasteizen 2019ko azaroaren 31n eta abenduaren 1ean.

Bestetik, "ekintzako arte" proposamen sorta bat ere aukeratzen da. Alegia, artista batek toki eta une jakin batean bere gorputzaz parte hartu behar duten artelanak dira; beraz, beharrezkoa da gorputzez bertan egotea, hori izango baita adierazpenerako eta obra garatzeko bitarteko nagusia.

Aurtengo berritasuna da Inmersiones taldeak "arte fikzioko" kontakizun ilustratuen lehiaketa bat jarri duela abian. Izen hori zientzia fikzioa edo science fiction jatorri anglosaxoiko izenaren kopia da. Arte fikzioa, beraz, esan daiteke beste arte mundu batzuen proiekzio edo irudimenera bideratzen den narrazio genero bat dela. Literatura genero honetako kontakizunetan, gertaerak edo ekintzak ez dira benetakoak, baina bai egiantzekoak edo gerta daitezkeenak. Kontakizun horien egiantzekotasunaren oinarriak arlo hauek izango lirateke: estetika, filosofia, psikologia eta arteen teoria.

"El arte del futuro / El futuro del arte" argazki lehiaketa da laugarren modalitatea.

# REDIL KOLEKTIBOA

## ETORKIZUNEKO ARTEA ARTEAREN ETORKIZUNA

Artearen etorkizunari edo etorkizuneko arteari buruzko arazoa oharpen zertxobait paradoxiko baina alferrikako batez konpontzen da: gaur, orainaldian, ari gara bizitzen, hain zuzen, duela bi, hamar edo ehun mila urteko artearen etorkizuna, iragandako edozein garaitako artearen etorkizuna. Hortik ondoriozta dezakegu etorkizuneko artea, guk zati oso txiki bat baizik ezagutuko ez duguna, gure orainaldi iragankor eta nahaskorrean oinarrituz egin ahal izango dela, hortik eratorriko dela. Izan ere, Franco Berardi filosofoak gogora ekartzen duenez: "izatearen etorkizuneko egoera bat gerta daiteke egungo munduaren eraketak berezko baldin badu edo hor txertatzen bada" (Futurabilidad. La era de la impotencia y el horizonte de la posibilidad. 2017: 13). Gure orainaldiak, laster-laster iragan bihurtuak, ezin dio etorkizunean eragiteari utzi (gutxienez, desoroimena ezartzen den arte, edo artxiboa errautsetan geratzen den arte). Iraganeko artearen etorkizuna garen neurrian, etorkizuneko artearen iragana gara.

Hori, hala ere, artearen alde akzidentala da, denboraren joanak, ez mantsoak ez lasterrak, baizik eta etengabeak eta saihestezinak, dakarrena. Aldiz, artearen alde mamitsuak zerikusia izango luke kontzientzia handitzearekin, giza perspektibaren jatorrizko joerarekin, eta batzuetan hori da artisten eta artelanen multzo jakin baten oinarrian dagoena garai jakin batean. Artearen mamia, hitz batez esateko, bere paradigma izango litzateke.

Hain zuzen, artearen historialari edo teorialarientzako interesgarria alde mamitsu hori izango litzateke: garai bakoitzeko artearen paradigma zehaztu edo deskubritzea edo, are, artearen garaia bere paradigmaren bitartez zehaztea. Hegel filosofoak, adibidez, egin zuen bezalatsu: artea hiru zatitan bereiziz, une sinboliko, klasiko eta erromantikoetan. Berrikiago, berriz, Jacques Rancièrek ere artearen erregimen politikoak hiru zatitan banatu ditu: etikoa, irudikapenezkoa eta estetikoa.

Paradigmaren kontzientziatik, gainera, bi artista mota daudela ondoriozta dezakegu: artista hedakorrak eta, kontrako aldean, inpantsibo edo barnerakoiak, nolabait ere deitzearren. Artista hedakorrek aldaketaren ligan jokatu nahiko lukete, bide berri bat proposatu, inauguratu, adibidez, Giottok edo Duchampek, denboran tarte zabal batez banandutako bi adibide aipatzearren, artearen etorkizuneko historiako garai oso batean. Artista barnerakoiek, aldiz, barnealdera nahiko lukete sakondu, birtuosismora heldu, bikaintasunera, dagoeneko existitzen den paradigma baten barruan, dagoeneko guztiz sendotua den esperientzia estetiko baten testuinguruan.

Logikoa dirudi pentsatzea artearen etorkizuna artista hedakorrek irekiko dutela, eta artista barnerakoi batzuek borobilduko dutela beren artelanetan, non eta artearen amaierara heldu ez garen, noski, A.C. Dantok adierazten zuen bezala (*Después del fin del arte*, 1999), alegia, paradigma berriak proposatu, probatu eta garatzeko ezintasunera heltzea. Orduan, artea barneratu beste erremediorik ez legoke, norbanakoek edo taldeek lehen, garai hedakorretan, beste batzuek irekitako bideak handitu beharko lituzkete, beste bide berri bat ireki ezinik. Eta artearen amaieraren beharrizan historikoa onartu, eta haren hileta ordaindu. Zeren eta artista hedakorrarentzat, hedatzen ez den artea, arte zonbi bat da, hilda dagoen baino horretaz jabetu ez den arte bat, alegia.





Vitoria-Gasteizko ikastetxe hauexen lankidetza izan dugu: Ekialdea, Urkide, Egibide eta Corazonistas. Parte hartu duten ikasleek 14 eta 22 urte artean zuten; eskerrik asko haiei guztiei eta esperientzia hau egiteko modua jarri duten irakasleei.











# SORKUNTZA PROZESUA

Anabel Quincoces

Gizabanako bakoitzak berezkoa du sorkuntza prozesua, eta horrek egiten du, hain zuzen, subjektibo.

Prozesu horrek askotariko faseak zeharkatzen ditu, hasi zeinek bere esperientziez edo kanpo-errealitateez egiten dituen analisi edo behaketetatik eta sorkuntza ideia umotzeko "bistarapenera", askotariko aukerak eta zirriborroak onduz, azkenean artelana zehazki egikaritzen den arte.

Artista batek bere artelana nola sortzen doan erakusteak ondo azaleratzen du haren buruan artelana sortzean egosten denaz.

**Zer gertatzen da artista batek artelan bat sortzeari heltzen dionean?**

Artista askok askotariko emozioetan, gogoetetan eta ikusizko loturetan oinarrituz deskribatu dute beren sorkuntza prozesua...

Artista naizen aldetik dudan esperientzian, prozesuan ez da soilik artelana umotzen; aldiz, prozesua bera da artelanaren zati.

Nire jarduera artistikoaren oinarria instalazio artistikoak baliatuz espazio berriak sortzea da, askotariko diziplinak uztartuz, espazio horiek eraldatuz eta itxuraldatuz, horiei buruzko oroitzapenaren arabera.

**Mundu berriak sortzea, paisaia berriak sortzea.**

Ni artearengatik eta arterako bizi izan naiz.

Prozesu artistikoa da nire bizi isuria, eta sena, berriz, nire iparrorratza, eta gustuko dut horiek oinarri hartuta nire mugak eta ezarritako mugak gainditzea.

**Ura metaforatzat hartuta, flotatzen noa eta nator, igeriketan, murgiltzen, saiatzen naiz esperimentatzen eta nire mundua, baita inguratzen nautenak ere, eraldatzen.**

Inmersiones 2019an kokatzen den Hezkuntzak 2019rako nire proposamenak, "Etorkizuneko Artea"k, etorkizuneko espazio berrietara hurbildu ditu ikasleak, prozesu artistikoaren bitartez. Espazio berri horiek Zas Kultur Espazioko lan-saioan proposatutako arte-ariketen emaitzetatik abiatuz eraiki dira.

Helburua zen beren sorkuntza-prozesuaz ohartu eta sor zezatela, prozesu hori ez baita beharrezkoa arlo artistikoetan bakarrik, baizik eta bizitzako edozein arlotan.

Nire pedagogia-ariketaren lehen zatia nire interbentzio artistikoak espazio desberdinetan bistaraztea izan da. Nire obran zehar egindako ibilbide laburra.

Bistaratze hori oinarritzat hartuz, ikasle gazteek, beren askotariko esperientzia, adin eta ikastetxeak abiapuntu hartuta, alde batetik, eta, bestetik, prozesu horretako behaketa eta gogoeta, eskultura txikiak sortzeko benetako sorkuntza-ariketa egin dute, paisaia berriak sortu arte. Etorkizuneko artearen paisaia berriak.







# *Caffeina d'Europa*

Francisco Javier San Martín

NAZIOARTEKO FORMULA BIZKORGARRI HORI BALIATU ZUEN FILIPPO TOMASSO MARINETTIK AUTOBIOGRAFIA TESTU BATEN IZENBURURAKO 1927AN, FUTURISMOAK BIDEAN HOGEI URTE EMAN BEHAR ZITUENEAN.




Fortunato Depero, *Studio del marchio*

"Futurismoa filosofia eta kulturaren kontrako mugimendu handi bat da, senak agindutako ideiak ditu, ukabilkadak, ostikadak eta belarrondokoak, gaztetu egiten du, araztu, berritu eta dinamizatu, eta 1909ko otsailaren 20an sortu zuen italiar artista eta poeta bikainen talde batek. Definizio guztien artean, nik teosofoen proposamena dut gogokoen: "Futuristak ekintzaren mistikoak dira". Izan ere, futuristak eserkeria pasiboaren kontra lehiatu eta borrokatu ziren, edozein itxura zuela ere: zuhurtasun diplomatikoa, logika ezkorra, neutralismoa, tradizionalismoa, liburuaren zaletasuna, liburutegiak, museoak eta irakasleak. Haiek bizia gurtzen zuten, eta dute, logikaz kanpoko haren aldaera koloretsu eta aztoratuan eta edertasun muskular eta kirolzalean. Ausarkeriaz harrotuta eta edozein arriskurekin maiteminduta, heroismoz eta plazerez bizitako bizitzaren mamiaz eta dardaraz aberastu zituzten artea eta sentikortasuna. Biziz sortu. Batzuetan kontraesanean erori. Ezarri, oldartu, borrokatu, gogor egin, berriz eraso! Atzera inoiz ez! Aurrera beti, ez usteldu!"

Lehendabizi *Sant'Elian* argitaratua. II. urtea, 5. zk., Erroma, 1934ko martxoaren 1a.

1909ko otsailaren 20an, "Manifeste du Futurisme" agertu zen *Le Figaro* egunkarian Parisen, eta data hori, hura sinatu zuen gizonarentzat (poeta gaztea, paristar sinbolismotik eta Annunzioren *décadence*tik edan zuena) inplikazio biografikoak izateaz gain , egokiera borobila izan zen italiar arteak paristar modernitatearen aurrean argumentu artistiko berriak aurkitzeko. Aspaldi gertatu zen Parisen egindako berrikuntza, eta italiartasunaren biziraupena bera modernitate gisa jokoan zen.

Marinettik sortutako mugimendua jardunbide abangoardista baten gauzapen erradikala da, sorkuntza eragiketa zabaldu gisa ulertzen duena, artea eta bizia bulkada berean kokatuz, moral burgesaren kontra.

Futurismoa mugimendu konplexua izan zen, egoera politiko desberdinetan bizi izan zena. Marinettiren zuzendaritza eta elkartzeko gaitasuna ez zen auzitan jarri futurismoa existitu zen aldi osoan, baina askotariko bertsioak daude haren muga kronologikoak ezartzeko orduan: argi dago 1909an sortu zela; beraz, eztabaida da ea noiz bukatu zen. Heriotza goiztiar horretara ehorzle ugari hurbildu dira, askotariko ikuspegi historiko eta ideologikoen arabera lan egiten dutenak.

Historiografia klasikoak abangoardiako mugimendu heroikotzat jotzen zuen futurismoa, taldetzat, erradikal, propagandistiko eta agonikotzat, eta Italia iparraldean sortua. Marinettik gidatuta, endekapenean sartu omen zen, Gerra Handiaren amaieran eta Umberto Boccioniren heriotzan ia desagertu, Boccioni baitzen horko artista nabarmenena. Aldiz, historia oso bestelakoa da: futurismoak suspertzen jakin zuen, eta bere burua berrasmatu zuen hurrengo hamarkadetan. Giacomo Ballaren irudi itzaltsuaren bidez eta 1915eko *Ricostruzione Futurista dell'Universo*ko manifestuak ekarri zuen zuzendaritza aldaketa sakonari esker, futurismoak beste zuzendaritza bat hartu zuen, Milandik kanpoko artista berriek osatua, futurismoaren ideiari irmo eutsi nahi ziona, estrategia artistiko berriak baliatuz. Balla, Fortunato Depero eta Enrico Prampolinik, besteak beste, muin futurista berri honen erdigunea osatzen dute, askotan ezikusia egin zaion arren, edo gutxietsi; sortzaile italiar aktiboenen zati handi bat bildu zuen, lan arlo oso desberdinetakoa.



Filippo Masoero, *Scendendo su San Pietro*, Aerofotografia, c. 1927-37.

Futurismoaren azkena Boccioni eta Antonio Sant'Eliarekin ezartzeak esan nahi du aipatutako *Ricostruzione futurista dell'Universo* manifestuaren inguruan ehundu zen iruditeria konplexuari muzin egiten zaiola, baita *Case d'Arte Futuriste* direlakoen mugimenduari ere, era guztietako sorkuntzei irekitako artisau tailer irekiak zirenak. Prampolini edo Bragagliako *Casa d'Arte*ri, Erroman, muzin egiten zaio, Deperokoari, Rovereton, Pippo Rizzokoari, Palermon, edo Tatokoari, Bolonian.

Esan nahi du ere muzin egiten zaiola Pariseko "Dekorazio Arteen Nazioarteko Erakusketa"n dekorazio, tipografia, jantzi edo antzerkira horiek proiektatzeko orduan artistek izan zuten lehen mailako rolari; bertan, Enrico Prampoliniren *Antzerki magnetikoa* proposamena eta Aleksander Rodchenkoren *Langile kluba* buruz buru lehiatu ziren begirada zorrotzenen eta arteko berrikuntzekin inplikatuen zeudenen arreta erakartzeko, hogeiko hamarkada erdialdeko Europa baikorrean.

Horrek esan nahi du, bukatzeko, italiar artisten taldeak izandako rol dinamizatzailea iluntzea, adibidez, Alberto Sartoris edo Virgilio Marchi arkitekturan, Ivo Pannaggi edo Vinicio Paladini fotomuntaketa, antzerki eta arte mekanikoan, edo Nicolai Diulgheroff, Gerardo Dottori eta Fillia *Aeropittura* delakoan, hogeita hamarreko urteetako argumentu nagusietako bat, poesian, zeramikan, xilografian edo musikan antzeko adierazpenak eragin zituena...; ildo beretik jo zuten Tato, Pannaggi, Paladini, Filippo Masoero edo Fedele Azzarik argazkilaritzan, Balla, Depero, Renato Di Bosso edo Thayahtek jantzietan, Prampolini, Balla, Fillia, Giuseppe Pagano, edo Gino Levi-Montalcinik barnealdeen arkitekturan, Tullio d'Albisola edo Farfak zeramikaren berrikuntzan, Depero, Paladini edo Bruno Munarik publizitatean, eta Silvio Mix edo Aldo Giuntinik musikan. Horrek esan nahi du hainbat jostailu, testu poetiko, posta bidalketa eta sukaldaritza errezeta ezabatzea; aldiz, askok, itxuraketa faxistatik haraindi, nahaste-borraste aztoratuetan eta koloretsuetan ikurrak manipulatzeko aukera ikusi zuten hor.



Fedele Azari, *Aiaretiko eskuorri futuristen jaurtiketa*, Turín, 1920.



▸ **Ilustrazioa:** Enrique Flores

# AAK (ADIMEN ARTIFIZIALAK) EGINDAKO ARTE GARAIKIDEAREN KRITIKA

Mikel Arbiza

**TXOSTENA** • "Edmond de Belamy" da 432.500 $-en truke New Yorkeko Christie's enkante etxean 2018an saldutako margolanaren izenburua, Obvious talde frantsesak egindakoa, Adimen Artifizialeko algoritmo mota bat erabiliz, Sare Sortzaile Antagonikoak deitua (Deep Learning algoritmoen azpiklase bat).

Gertaera historiko horrek (*"AA batek egindako lehen artelan"* gisa iragarria) hiru galdera interesgarri proposatzen ditu arteko egiletzari, orijinaltasunari eta arte jardunbideei buruz, ikerketa zientifikorako aztergai gisa.

**1) Nor da artelanaren egilea prozesu mekanizatu batean?** Ezer baino lehen, nabarmendu behar dugu Deep Learning sistemek, gizakiak ez direnez, ihes egiten diotela sormenari buruzko gure sailkapenetatik. Hala ere, hasi behar gara arte adierazpen berri horiek onartzen; izan ere, haien arkitektura konputazionala argi eta garbi homo sapiensaren burmuinak lan egiteko duen erak motibatzen duenez, beste adimen hauek simulazio gisa balio diezagukete, eta giltzarri oso garrantzitsuak emango dizkigute gure burmuinetan egiten diren askotariko prozesuen neurologia oinarriei buruz.

**2) Zein puntutaraino da originaltasuna balio adierazgarri bat gizarte digital garaikideetan sormenaz hitz egitean?** Obvious taldeko kideek Kode Irekiko algoritmoen liburutegi bat erabili zuten "Edmond de Belamy" erretratua egitean, baina algoritmo horiek Robbie Barrat deitutako gazte batek sortu zituen, eta Github webgunean libre partekatu. Algoritmo horiek Adimen Artifizialari buruzko ikerketa urte askotan oinarritzen ziren, eta hainbat pertsonak egin zituzten. Beraz, pertsona askoren iritziz, artelan hau ez da originala, jendartean "artistaren" maisutasunari egozten baitzaio originaltasuna; auzitan ere jartzen da pertsonek idatzitako algoritmoek sortutako lanen merkantilizazioaren atzean dagoen etika. Hala ere, nabarmendu behar da arte sorkuntzaren munduak berkonbinazioz egindako artelanez josita daudela, hasi "sanpleetatik" (soinu laginetatik), hip-hop musika erabiltzen dutena, eta arte afrikarrak Picassoren margolanetan duen eragineraino.

**3) Izan daiteke arte sorkuntza eta gogoeta espazio emankor bat ikerketa tekniko-zientifikorako (eta alderantziz)?**

Berrikuntza fotografikoak artearen, teoria estetikoaren eta mundua irudikatzeko moduen eraldaketa ekarri zuen XIX. mendean; bada, eraldaketa hori dirudienez produkzio bitartekoak demokratizatuko dituen Adimen Artifizialeko egungo iraultzarekin pareka daiteke. Egia bada ere artista askok barre egiten bide diotela AA bat sortzaile izatearen aukerari, egia da adimen sintetiko horiek "gauzak" sor ditzaketela, nahiz eta gure ikuspegi antropozentrikotik ikusita asmorik ez duten, eta ez diren gai ere garrantzitsua zer den bereizteko. Uneko ordenagailu programek ez dute kausazko konexio adierazgarri gehiegirik sinboloak kudeatu eta haietatik ikasten dutenean asmorik erakutsi ahal izateko, baina horrek ez du esan nahi etorkizun hurbil batean Adimen Artifizial mota berri "haragiztatu" batzuk (ingurunearekin elkarrekintzan aritu daitezkeenak) beharbada gai izango ez direnik beren artelanari esanahia emateko.

Alan Turing matematikari itzaltsuaren iritziz, Theodore Adorno filosofoa gogora ekarriz, esan dezakegu artistak senaren logika bati lotzen zaizkiola, arauei lotutako beste edozein jarduera bezalako prozesu bati. Harnold Cohenek berak, AA bitartez egindako artearen aitzindariak, AARON sistema aditua diseinatzean, pentsatu zuen egon behar zela "arau multzo bat asmatzeko modua eta, gero, ia pentsatu gabe, arauei lotuz pintura egitea". Ikuspegi hori oso berezkoa dute artista mota batzuek, adibidez, Piet Mondrianek eta 1920 eta 1930eko hamarkadetako bere abstrakzio klasikoek, bere buruari ezarritako araubide multzo baten arabera egin zituenak: lerro zuzenak baizik ez ziren onartzen, eta angelu zuzenak osatuz baizik ezingo zuten elkar ukitu; gorri, urdin eta horien (gehi zuri eta beltzen) sorta batez bakarrik irudikatu ahal izango ziren.

Hala ere, jende gehienak irudikapenezko artelanen atzean dauden artisautza eta trebezia miresten baditu ere, aspaldítik arte garaikideak ez ditu bakarrik irudiak lantzen, eta Sare Sortzaile Antagonikoen bidez egindako lanek arazo bat dute: funtsean, mimetikoak dira. Zalantzarik gabe, tramankulu horiek aldaera interesgarriak sortzen dituzte, baina oraingoz Neurona Sare Artifizialak ez daki lanerako baliatzen duen datuen mundutik urruntzen; beraz, beharbada ez dira inoiz gai izango testuinguru historikoa islatzen duen irudi bat sortzeko artelan bat osatzen duenaz dugun ideia gainetik kenduz.

Pertsona batzuek uste dute arte garaikidearen munduan ikusten ari garen Machine Learning algoritmoen ezarpena eta erabilera "Gesamtkunstwerk" edo erabateko artelana direla; beste batzuen iritziz, berriz, bakarrik adierazten dute mota horretako kultura tramankuluak behar ditugula Adimen Artifizialaren erabilera industrializatua kritikatzeko. Horregatik guztiagatik, presakoa da eztabaidatzea ea zein irizpide erabili

makina ikasketako tekniken bidez egindako artelan berri horiek aztertu eta kritikatzeko; izan ere, beharbada gertaera historiko baten aurrean gaude, arte jardunbidearen etorkizuna definituko duena.



https://obvious-art.com/edmond-de-belamy.html

# NEURO-ARTEA

Alizée Armet

**TXOSTENA** • *Zaila da jakitea non amaitzen den artea, eta non hasten den zientzia.* Ohar horretan oinarrituz, *Neuro-Arte* ikerketa programak galdera sorta horretan parte hartzen du. Artista ingeniari, zientzialari bihur daiteke, edo beste hori artista bihurtu. Artistaren egoera hibridoa jardunbide artistikoen etorkizuneko aukera bat da.

Jardunbide artistikoa, esperientzia gisa, teoria bezain garrantzitsua da. Charles Percy Snow kimikari britainiarrak *bigarren kultura* baten ideia aipatu zuen 1959an, non zientzia eta giza zientziak elkarren kontra borrokatzen diren. Egun, ordea, hobe da *laugarren kultura* batez hitz egitea. Neurozientzia sortzen ari den zientzia bat da, eta artearen premia du, arteak neurozientziaren premia duen bezalaxe. Metodologia artistikoak osagarriak dira zientzialarienekin: hautematearen eta errealitate fisikoaren azterketa, adibidez. Artea zientziak *behar duenaren ahots* bihur daiteke, konfiantzaren iturri.

Irudien kontsumismoaren aro honetan (bertan, algoritmoek, kodeek, egunerok bizitza korapilatzen dute), artisten eta neurozientzialarien arteko koherentziak lagundu egin dezake jarrera adimentsuagoa garatzen, *irudiaren ekologia* baten kontzeptua izaten: aktiboki erreakzionatzea. Bizi ditugun garaiotan, artea jardunbide konputazionala bihur daiteke, eta jarrera horretan makina sistema adimentsu bat da. *Arte konputazionala* hobe ulertu eta bizitzeko tresna gisa agertzen da. Orain neurona sistemak erabil ditzakegu, adibidez, *Deep Learning*, *Machine Learning*, *Deep writing*, *RNN*ekin, neurona sistema artifizialekin, erlazionatutako guztia. Aldi berean, gure munduaren irakurketan oinarritzen dira, baina baita denboraren irakurketan ere. Irakurle neurologikoen inplikazioak lagundu egiten du *burmuin gisako pentsamenduaren* ideia aditzera ematen, alegia, sortzeko gai den sistema adimentsu baten irudia, non artistak kanpoko pentsamendu gisa esku hartzen duen. Sistema hori eskatzea da jardunbide artistikoa *hipersorkuntza* dela berrestea. Alegia, Internet jada finkatutako material bat da, erabiltzeko prest, batez ere artistentzat, 90eko urteetatik.

*Sistema adimentsu* batekin lan egiteak makinaren aurrean gizonak duen identitateari buruzko galderak pizten ditu: gizonaren begia makinarenarekin konparatuko da. Galdera batean oinarritzen da, eta artistaren harreman sistema berrikustea eskatzen du. Jean François Lyotard filosofo frantsesaren hitzak gogora ekarriz, *giza kontrakoa* jarraitu beharreko eskema gisa agertzen da. Beharrezko egiten da *ez-gizatiarra* bilatzea. Bila ezazu, saiatu gauzak bestela egiten, elkartu makinarekin, ez harekin lehiatu. Gizatiarretik *giza kontrakora* eta *ez-gizatiarrera* igarotzea harreman sistema berri bat



da eta, beraz, makina adimentsuek sortu duten errealitate berria ulertzea.

*Neuro-arte* ikerketa artistikoko ildo bat da, sorkuntzaren eta pedagogiaren zentzuan, ezagutzak partekatzearen zentzuan. *Stadt.xml* ikerketa ildo honen proiektu bat da, NekatoEnea eta Basis e.v. egituren IEPA egonaldian egindakoa, Bordele Frantziako INRIAko ikertzaileen laguntzaz diseinatua. Proiektu honek gailu honetan parte hartzeko modu gisa erabiltzen du burmuinaren jarduera. *Fotogrametriak* sortu duen ingurune digital batean murgiltzera gonbidatzen du gizabanakoa, eta objektu bat begiradaz mugitzera, haren gorputza eskatuz. Kasko neuro-zientifiko bat eta errealitate birtualeko kasko bat uztartuz, gailu teknologiko batean itxura hartzeko modu berri bat proposatu nuen. Sortutako irudiak, beraz, errealitate espekulatibotzat jotzen dira. Burmuineko jardueraren bidez parte hartzeak eskatzen du ikuslearen aktibismoa eta artelanaren aldibaterakotasuna berraztertzea eta errealismo berri bat sortzea.

Programa honen beste alderdi bat irudi berrien sorrerari buruzko pedagogia da. Fabrikazio digitalari buruzko tailerrak eskaini zitzaizkien bertaratu ziren gazteei. 3D inprimagailuak eta beste tresna batzuk erabiltzen ditu, eta horiek inprimaketa eransgarria baliatzen dute sortzeko zein gogoeta egiteko. Adibidez, 3D arkatzaren bidez *fotogrametriaren* aukerak esperimentatuz, gailuen funtzionaltasun hutsa baino urrunago ikustera animatu nahi dut jendea. Fabrikazio eransgarria, beraz, kontzeptu bat bihur daitekeen diseinu eredu bat da, hartara munduaren ikuspegi hobe bat lortzeko.

# MURGILKETA 2019, EMERTSIOA XXI

Irati Inoriza

**TXOSTENA** • Antzematen dut *etorkizuneko* gorputza elementu ukigarri eta birtualen nahasketa bat izango dela, elkarrengandik bereizi gabe. Gorputzak gainezka egin du sorkari biologiko gisa; sentitzen dugu gure garaiaren bilakaerak eraldatu egin duela gorputzaren erreferentzia, kultura eta politika bitartekaritzaren bidez. Fluxu batean bizi gara, etengabe gure gorputzaren irudia igorri eta jaso egiten duena, mugarik gabeko informazio itsaso batean, non gure gorputzaren forma anizkoiztu, desegin eta birmoldatzen den, laster batean.

Teknologia digitalek aldaerak sortu dituzte ezagutza, pertzepzio eta zentzumen mailan, ingurune digital batean bizi garelako. Gure bizitzen zati handiena, F. "Bifo" Berardik adierazi duen bezala, bat dator sentikortasunean eta sentiberatasunean jazotako "mutazio antropologikoarekin" [1] eta, beraz, baita "bestearen gorputza nire gorputzaren beraren luzapen bizi gisa hautemateko gaitasunarekin".

Gure biziraupena bilatzen dugu, besteari lotuz, osotasunari konektatuta, mugarik gabea dirudien elkarren erlazioan. Hurbil, elkar lotuta, tentsioan, indarrez, pisuz, formaz, tempoz eta esamoldez. Abdukzio ariketa bat da, "bestearekiko (beste gorputzarekiko)" harremanerako, eta ez "bestearen lepotik". Segi eta segi, presente egoten segitu, besteak gu presente ikustea/egitea, gure erreprodukzio etengabean, ez desagertzeko, eta partaide izateko, hemen eta orain betiko egoteko. Izan ere, denbora kronologikoa



igarotzen den bezala, denbora bitartekotuak iraun egiten du.

Gorpuztasun garaikiderako hiru biziraupen moduk erakartzen naute, haien forma eta korrelazioagatik. Hiru forma desberdin dira, baina elkarri lotuak, elkarrekin artikulatzeko, hala subjektu indibidual nola kolektibo gisa, irauteko ahaleginean. Hito Steyerlen ekarpenei lotuz, bat nator harekin artearen barrutik sustatutako indar ikonikoak gure gizartearen bizi gogoetak eraldatzen dituela. Haietan, heroiaren hilezkortasuna, "edozein probaren gainetik biziirauteko indarra" den aldetik, "fotokopiatua, birziklatua eta berraragiztatua duen gaitasunagatik" balioesten da orain[2].

**(fotokopiatutakoa)**

Argi dago etengabeak bihurtzeko dugun interesa; are, iraunkorrak garela uste dugu, gure irudiak konta ezin ahala esteka eta sareetan erreproduzitzen ditugunean. Ematen du gure existentzia *like*-en bidez anizkoitzen dugula, eta horien kopuruan neurtzen dugula arrakasta. Presente egiten gara, eta dagokion traola, hashtaga errepikatuz jartzen gara harremanetan "osotasunarekin". Desiratutako toki horretara heltzen gara, eta are, uste ez genuen tokiraino ere, konexioak ugalduz. Eta galdetzen diot nire buruari: ze formak osatzen gaitu gure irudiaren errepikatze eta esteka ekintza horren bidez? Traolek zuzenean jartzen zaituzte harremanetan beste milioika irudirekin eta, aldi berean, konexio ekintza horren bidez, gorputz bat saretzen da. Zuk estekatzen duzun irudikapena milioika gailutan erreproduzitzen da eta, aldi berean, osotasunaren irudi bati erantzuten dio. (...)

*Antes de morirme otra ve' Antes de morirme volver a nacer Antes de morirme mátame' El ciento por ciento, por cierto. Antes de que muera yo (antes de morirme). C. Tangana. Antes de morirme feat. Rosalía.*

**(birziklatutakoa)**

Artikulatzen gara, egiten gara, eta berregiten gara. Gure irudia aurkitzen ditugun zatietatik sortzen da. Besteetatik elikatzen gara. Inguratzen gaituzten irudiak hartzen ditugu, gu itotzen gaituen informazio isurian sartuta egoteko eta biziirauteko. Biziirauteko, flotatzen jarraitzeko ahalegin horretan, gure gorpuztasuna beste baten zati bihurtzen da. Gure "nia" urtu egiten da, baina guztiaren partaide bihurtzen gaitu. Joker-en film berrian, mundu guztia katamalo berarekin ateratzen da kalera: norbanakoaren biziraupena erantzun kolektibo bihurtzen da. (...)

*Can we pretend? I'm on my I'm on my back again It's seeming more and more Like all we ever do is see. Billie Eillish - When I was older.*

**(berraragiztatutakoa)**

HER filmarekin jarraituko dut [3], giza erakarmena nola eraldatzen den sistema eragile batekiko (adimen artifiziala), azken honek gu hunkitzeko, are, maitemintzeko gai izateraino, batez ere Samanthak (Siri izan daitekeena) honela dioenean: "Programatu nindutena baino askoz gehiago bihurtzen ari naiz. Hunkituta nago"[4]. Galdera egiten digun gorpuztasun birtual bat da, eta bertan emozioen eraketa berri bat antzeman dezaket, giza (edo gizaostekoen, transgizakien) sentimenduak berregiten dituen istorio batean. Peio Aguirrek filmaz dioenez, "etorkizun koloreztatu honetan, distopiak antsietatearen kapitalismo baten sintoma batzuk itzultzen dizkigu, eta horiek subjektibotasunak zulatzen dituzte, teknologiak gorputzen eta afektuen gainean txertatzen duen desgorpuztasunaren bidez. Maiteminduta edo triste, diseinuz". (...)

Sentitzen dut gorputzak, edo hobe esan, gorputzek gainezkatu egiten dutela erreferentzia biologizista eta, trukean, errealitate berrien, ukigarri eta birtualen konplexutasunean sartzen dira, "berraragiztatzen" gaituztenak. Eta ez dira ahaztu behar haien kultura eta politika harremanak. Agirreren hitz batzuekin amaituko dut: "kapitalismoaren egungo fasean, salgaiek aspaldi utzi zioten objektuak izateari, eta, trukean, kontakizun bihurtu dira, narrazioak, materialaz gabetutako formak; bada, hor aurkitzen du kapitalak gorputzak eta buruak kolonizatzeko era onena". Bertan, gorputza, berritxuratu egiten da testuinguruarekin harremanetan, biziirauteko.

Segi, segi. Egin hurrengoa. Biziraun, egin irribarre, aukeratu pilula urdina, eraman Siri zurekin, beharrezkoa izango baitu, ugaldu zaitez, desegin zaitez, eta izan osotasunaren zati, berregituratu zaitez laster batean, egoteko eta partaide izateko ahaleginean, eta hori guztia ez itotzeko.

Gogoratu: *pa' pa que quede, Con Altura*.

1 "Bifo" Berardi, Franco. *Fenomenología del fin*. Ed. Caja Negra, 2017.
2 Steyerl, Hito. *Los condenados de la pantalla*. Ed. Caja Negra, 2014.
3 Película HER. Dirigida por Spike Jonze, 2013.
4 Aguirre, Peio. *Her y la semiótica del entorno*. Materiales concretos.

## ALGORITMOAZ FIDATU EZ

Pablo Martínez Garrido

**TXOSTENA** • Inork ez du argi etorkizunean arteak nolako forma har dezakeen, baina bada duda egin ez dezakegun zerbait: artea magikoa dela, iruditeria sortuz bere garaiko errealitatea irudikatu eta, aldi berean, eraikitzen duela. Hobe, galdetu beharko genuke zein izango den etorkizuneko arteak irudikatuko duen gizartea eta zer-nolakoa izango den forma emango dion amestutako mundua.

Egun konputazioaren lengoaia munduari forma ematen saiatzen da, hura errazago aurreikusteko, eta haren logika zibernetikoek gure bizitza zeharkatzen dute. Ikusteko dago artea zibernatikarekin bat egingo ote duen azkenean, bi kategoriak sailkaezin bihurtu arte edo, aldiz, bere egingo dituen beste toki batzuk, teknologia neoliberalen bitartekaritzaren aurrean erreakzionatuz, materian sustraituz. Aukera bat ere badago abangoardien helburu hori, artea eta bizitza bateratzekoa, betiko betetzekoa, artea bizitasunaren sinonimo bihurtzeko. Era horretan, baldin eta oraindik artearen ahalmenean esperantza apur bat badugu, lengoaia nagusien iruditeria auzitan jartzea izango da haren zeregin politikoa.

Ez litzateke lehendabiziko aldia izango; izan ere, arteak hainbat aldiz lortu du hori historian. Adibide bat aipatzearren, hainbat ikertzailek William Turner margolari erromantikoari egotzi diote Errenazimendutik Ilustrazioak arrastatzen zuen ikusizko araubide akitua paisaia bihurri eta langartsu bihurtzekoa. Oriol Fontdevilak azaldu duenez, «*Turner-ek itzulbiderik gabeko zartakoa eman zion ikuslearen begiari, orojakile eta subirano izatetik apaldu zuenean [...]. Gonbitea egin zion hari [ikusleari] pinturaren gainazalari buruz dudatan hasteko, hura gardena eta berehalakoa ote den*».[1] Bestalde, Hito Steyerlek azaldu zuen nola *Esklaboen itsasontzia* margolan ospetsuan (1840) «*perspektiba lineala —ikuspegi nagusia, nagusitza jarrera eta subjektu baten kontrola— baztertu egiten den, erori eta hondoratzen, eta, harekin batera, baita espazioaren eta denboraren ideia ere eraikuntza sistematiko gisa*».[2]

Funtsean ikusizkoa den gizarte batean, irudiak rol oso garrantzitsua betetzen du. Uler dezakegun arren lengoaia kolonialak zinematografoa antropologiarako erabili zuela, herri exotikoen bizia katalogatuz, ez da zaila *Faceptionen* gisako jardunbideak imajinatzen; israeldar konpainia horrek nortasuna detektatzen lan egiten du, aurpegia ezagutzeko sistemak garatuz. Hor algoritmoak eta panoptikoak bere egiten dute irudíteria lengoaia zientifikoaren bidez, kontrol sistema arrazista eta homofobo bati objektibotasuna eskaintzeko. Gertaera horrek beldurrak eta gogoetak sortzen ditu, adibidez, Manu Arreguiren *Maritxu mugimendua neurtzeko azterlanan*; izan ere, maritxu manera, logika patriarkalean homosexualitatearen berezko ezaugarritzat jotzen dena, jarrerei buruzko datuen segida batean zatikatzen da. Saretaren kortsearen bidez, kulturaz *luma* izateari egozten zaion mehetasuna erregistratzen da eta, aldi berean, ikonografia zientifikoaren bitartekaritza nabarmentzen. Muybridge zaldiarekin bezalaxe, mugimendua denboran luzatzen da, begirada heteropatriarkala (jo eta ke saiatu arren) hautemateko gai ez den hori aurkitzen saiatzeko.

Hala ere, ez da zaila diskurtso horretan pitzadurak antzematea beste posizio batetik begiratzen bada. Joy Buolamwini afroamerikar ikertzaileak aurpegia ezagutzeko sistemak ikertzen ditu, eta ondorioztatu du gaiari buruzko konpainia garrantzitsuenen Adimen Artifizialak % 99tan identifika ditzakeela aurpegi kaukasoarrak, baina % 35etan bakarrik aurpegia beltza baldin bada. *Algorithmic Justice Leage* plataformatik Buolamwinik aditzera eman nahi duen bezala, Adimen Artifizialaren objektibotasun erlatiboak pertsona beltzei akusazio faltsuak egiteko modua ematen du; hain zuzen, horrek frogatuko luke lengoaia zientifikoa gorrotoa zuritzeko balia daitekeela.




Laburbilduz, etorkizunera begiratzen badut, ez naiz gai izango asko ikusteko. Nire belaunaldiak ezintasun bat du komunean, ezin baitu imajinatu hondamenditik haratago doan mundu bat. Hala ere, beti jakingo dut artea hor egongo dela itsukeria sendatzeko. Orain arte irudíteria asko auzitan jartzeko gai izan bagara, orain algoritmoaren gaitasuna auzitan jartzea egokitzen zaigu (algoritmoa gizatasunaren adierazpide muturrekoena bada ere, bestalde).

1 Fontdevila, Oriol. *El arte de la mediación*. Bilbao: Consonni, 2018. pág. 102.

2 Steyerl, Hito. *Los condenados de la pantalla*. Buenos Aires: Caja Negra, 2014. pág. 22.

## ANTROPOZENO AROKO BARRASKILOAK

Amaia Molinet

**TXOSTENA** • Kretazeoko barakuilu edo karakolak gure hirietako askotariko monumentu eta eraikinetan ezkutatzen dira: Guggenheim Bilbao Museoko eskaileretan, Donostiako Aquariumeko sarrera aurrean kokatutako kare blokeetan, baita Madrilgo Museo del Pradoren aldamenean kokatutako iturrietan ere. Dinosauroen garaiko gasteropodo maskorrez jositako arroka sedimentarioz eraiki dira horiek guztiak, duela 100 milioi urte gutxi gorabehera.

Gure planetaren geroaldiari buruzko kezka batetik abiatuta, bertan uzten dugun aztarnan oinarrituz, jakin-min bat dut planetaren degradazioaren inguruan, eta fosila baliatzen dut izan daitezkeen beste espazio-denbora eraketei buruzko gogoeta egiteko, konnotazioa eta iradokizuna erabiliz. Gertaera sotil baina etengabe batean jartzen dut arreta, hura kezka sakonagoen oinarri gisa erabiliz. Kezka horiek kontsumoaren krisiaren eraginarekin eta hondakinekin dute zerikusia, klima aldaketa eta munduaren beroketarekin, horiek aro geologiko bat osatzen baitute, dagoeneko Antropozenoa deitu izan dena.

Nire gaueko paseoetan topatzen ditudan askotariko izaki bizidunak (barakuilu, intsektu eta abar) hartzen ditut oinarri gure planetan iragan denbora batean bizitako beste izaki batzuek utzitako markarekin haiek konparatzeko. Maite dut askotariko hirietan aurkitzen diren eraikin eta monumentuetako fosilak argazkiz zein bideoz dokumentatzen joatea. Hala ere, interesgarria zait ere nire gaueko paseoetan egungo askotariko izaki bizidunei argazkiak ateratzen joateko keinu errituala ri eustea, arreta berezia jarriz gasteropodoei eta intsektuei, beren forma konplexuaz antzinagoko bizi formak ematen baitituzte aditzera. Interesgarria zait izaki horiek asfaltoan edo arroka itxurako gainazaletan mugituz dokumentatzea, hiri eremuetan.

Ezin diot pentsatzeari utzi gizarte eta kultura eraikuntzatzat jotzen dugula natura, gizakiaren berezko espazioari hura arrotza izango balitzaio bezala, eta alteritatez ikusten dugu. Edertasun eta perfekzio idealak ikusten ditugu naturan, hark giza inpaktu oro leundu eta haren kabuz oreka berreskuratuko duelakoan. Orduan, liluraz ikusten dut zenbait izaki bizidunek (planetan bizikide ditugun espezieak, azken batean naturaren munduko partaide baitira) gure hiriak eta gizakiaren erosotasun eremuak inbaditzen dituztela; hartara, ihes egiten diete naturaren gain egozten ditugun perfekzio kanonei. Izakiotan, kulturaz eskuratu dugun nazkaren eta edertasun mendera kaitz konplexuaren arteko nahasketa bitxi bat hautematen dut.

Informazio horretan oinarrituz, prozesu izaera nabarmena duen artelan sorta bat sortzen dut, eta artelan horiek harremanetan jartzen dituzte aipatutako izaki bizidunen (barakuiluen) fosilak, argazki irudiak eta bideoak, eta manipulazioz artifizialak diren materialak (poliuretano aparrezko isolatzaile termoakustikoa), argi eta garbi sorburua naturan dutela identifika daitekeen beste material batzuekin (adibidez, burdina, lurra, granitoa eta marmola). Material horiek guztiak berezko lengoaia bat sortzeko ahaleginean aplikatzen dira, haiekiko nire intimitatean oinarrituz, eta prozesu artistikoan bertan era organikoan sortzen doazen exijentzien arabera.



# HEGEMONIAK 1. EDIZIO PROBA

Juan Pablo Ordúñez / MawatreS

*#BlackMonuments #Nada es verdad, todo esta permitido #Yo amo las situaciones que nos obligan a conspirar #Es más fácil imaginar el fin del mundo que el fin del capitalismo #Inmersiones 2019 El arte del futuro*



**TXOSTENA** • Batzuetan, 2 proposamenek izenburu berbera dute. Batzuetan, kasualitatearen fruitua da, eta beste batzuetan, bi gauzek antzeko ideia batzuk transmititu nahi izatearen ondorioa da. Hirugarren talde bat ere badago: zerbaiti edo norbaiti omenaldi bat egitea erabakitzen den aldia, eta gauzak errepikatzen dira… baina orain ez diogu horri erreparatuko (oraingoz).

Kasualitatez, Europako jaialdi ospetsu batean (orain AEBn egoitza duena ere), DJ batek erabaki zuen faxismoaren kontrako ereserki bat egungo musika elektronikoarekin nahastea… eta ezusteko batean (zertxobait edanda ere bai), eszena bitxi bat ondu zen, mundu osoko goi eta erdi klaseko gazteek estasi une bat bizi zuten bitartean, partisanoen Bella Chao abestiko erritmoaren airean. Bideoek herrialde askotako banderak erakusten dituzte, bataila aurrean izaten den gogo biziaz haiek astintzen… tartean zirela ikurriña bat hasteko, gero Portugal, Israel, Espainia, Alemania, Suitza, Brasil, Txina, Zipre, Italia eta beste batzuetakoak. Eszenategi horretatik oso urruti, beste oso desberdin batean, baina izen beraren pean eta beste era batera biharko lurra imajinatuz, pelikula bati jarri nion arreta. Proiektu hau garatzeko ikustea erabaki dudan film askoetako bat da hura, eta asmakizunen lehiaketa batekin hasten da, New Yorkeko etorkizunari buruzko ospakizun batean 1964an. 10 urtera heltzen ez zen gazte batek bere asmakizuna aurkeztu zuen, artean borobiltzen bukatzeke zuela, baina aukera asko zituena. Epaimahai bat ez zegoen konbentzituta eta, eraginkortasun eta baliagarritasunaren balioetan tematuta, haren proposamenak zituen aukera praktikoez galdetu zioten gazteari, eta asmatzaile txikiak, berriz, honela erantzun: batez ere besteentzako inspiratzaile izatea. Ilusioa piztea. Epaimahaiak proposamena guztiz baztertu zuen orduan, aditzera emanez kapitalak ez duela denborarik beste batzuk inspiratzeko… errore handia.

“HEGEMONIAK 1. edizio proba” bat da, begiradako lehen ariketa batez garatzen den proiektua. Iruditzen zait artearen munduak askotariko aukerak dituela, iruditerien sortzailea dela, eta filmako asmatzaile gazteari arrazoia emanez, sinesten dugu haren alderdi garrantzitsuenetako bat dela errealez bestelako aukera batzuk proposatzea, inguratzen gaituzten errealitateak hobeto ulertzeko ariketa gisa hutsu-hutsean. Kasu honetan, arretaz behatu dira testuinguru batzuk, eta iruditzen zaigu horietan beste aukera batzuk imajinatzeko proposamen askatasuna erabatekoa dela. Testuinguru horietan, bizi garen munduarentzako beste eszenategi batzuk imajinatzeko gaitasunak itxuraz mugarik gabe eraiki dira. Gizarte harremanak, gobernantza ereduak, posizio politikoak, ezin konta ahala izakiren arteko bizikidetza, bizitzeko lekuak unibertso osotik hedatzea… amests kapitalistak ezusteko erpinetan gauzatzen diren testuinguruak, garraiobide, musika, diseinu, moda diseinu, arkitektura, gastronomia eta abarren inguruko proposamenez hitz egin gabe… baina hegemoniak, kapitalak bezala, ez du mugarik. Eta gure etorkizun gogoak irudikatzen dituzten agerpen horien erdian, are, klima soluzio berdeez inguratzen den eta zainketak erdigunean jartzen dituen bizikidetza absolutuaren aterpe bilakatutako etxeorratzen erdian, hor ere, boterea agertzen da, guztia hondatu nahi duen bilauaren itzala bailitzan, eta hegemonia formaz zeharkatzen gaitu.

Irudimenezko etorkizunak proposatzen dizkiguten aukeren ozeano itzel batean murgilduta, liluratu egiten gara inmentsitatearekin, ohartu gabe katalogoaren sortzaileak berak jartzen dituela mugak, aurreiritziak, eta gure etorkizuna guk imajinatu ahal izateko bidea. Eraikitzen goazen erreminta kaxa desio aukerak zehazten joaten da, erreminta horien jatorrizko lekuaren arabera. Zaila da imajinatzea beste hizkuntza batez, jakin ez baldin badakigu hura existitzen dela.

“HEGEMONIAK 1. edizio proba” alarma proposamen bat bezala partekatzen da. Deskonfiantzarako sorkuntza bat da. Ariketa honek galdera eta erantzun izatea bilatzen du. Gure egunerokotasunean kudeatzen diren galderak besteren ahotan jartzea bilatzen duen betebehar akademikoa da.

# FEDEA. ERRESISTENTZIAK

Izaro Sola

**TXOSTENA** • Etorkizunaz hitz egiteko ezinbestekoa zait iraganaz eta gaur egunaz hitz egitea. Fedeaz ez naiz fio. Eraiketan proiekta dezaket soilik etorkizuna.

Egun Euskal Herri kontestuan dauden praktika eskultorikoen jarreren analisia ikertzen nabil. ESKULTURA, espazioa bere osotasun eta konplexutasunean lantzen duen disziplina/ekintza oro bezela ulertutzat emanez.

Jarrera erresistentea somatzen den oro harakatzean datza, bertan ematen den joera eta estetika goraipatuz.

Abiapundu hau jomuga izanik, 60-80. hamarkada bitartean Euskal kontestuan eman ziren pratikak izango dira alderagai. GAUR taldearen nortasun eta identitate kolektiboen estetikaren garapena jorratuz. Garai hartako beste jarrera eta estetika kolektiboen saiakerak, talde anitzekin elkarrizketan jartzen ditut, “Up Against the Wall Motherfucker” taldea New Yorken edo “La Fracción del Ejército Rojo (Rote Armee Fraktion – RAF)” Alemanian, kasu.

Ahalmena, adorea eta desira erpinak azpigaitzat edo jarreratzat harturik, nere burua eta praktika hemen kokatuko nuke. Euskal Herrian bizi den emakume euskaldun eta artista naizen heinean, nere lana ikerketa honen barruan kokatu beharrean nago. Hortaz, esperientzia den praktikatik garatuko da ikerketa teorikoaren kunklusioen nondik-norakoa.

Etorkizuna eraikitzeko, iragana ezagutu behar dugulakoan nago, ezin baztertu. Horregatik, ez dut uste planteiatzen den gaiaren aurrean, arazo konkretu eta kolektibo horren aurrean, indibidualki erantzun beharko genionik. Arazo kolektiboei, kolektiboki aurre egin behar zaiela uste bait dut.

Artea, kolektibitate hori lantzeko eta kontzientzia sortzeko herraminta posible bat izan liteke, edo horrela izan dadila proposatzen dut. Artea moldaera horretara bideratu dadila apustu egin nahiko nuke.

NO FUTURE lelopean, iragan gabeziaz, Punkiek `70an hitz egin ziguten. Jarrera eta koszientzia posizionamendu posible bat bezela ulertzen dut hau, joera bat. Momentu konkretu batetan eta espazioa konkretu batetan ematen denari erreparatu nahi zioten, espazioa horren arabera eraldatu zedin. Espazioa bere baitan ez da, bertan gertatzen den zeozer baizik. Espazioaz mintzon naizenean, ikuspuntu honetatik ikusten dut. Jarreraz.

Etorkizunaz hitzegin dezagun, nik nere ikerketa azalduko dut, errepikakorrak izan diren giza izaera hoiei erreparatzen; espazioa, kolektiboa, identitatea, nortasuna, lekua eta hauei aurre egiteko hartzen dugun jarrerak aipatuz. Hemendik, uste dut, etorkizunaz eta artearen etorkizunaz solasaldia edo eztabaida abagunea badela. Gatazka. Mugimendua eta eraldaketa.

Pasibitatearen aurka aktibazioa.

Espazioaren lanketa eta eraldaketak, betiere etorkizuna eralda dezakelakoan nago.

Kokaleku batetik soilik egin dezakegu aurrera, posizionamendutik, aktiboki.

Gure burua kokatuz eralda dezakegu oraina eta eraiki dezakegu etorkizuna.

Zalantzan jarriz ezarritakoa, zalantzan jarriz gure buruak.

Honela proiekta dezakegu etorkizuneko beharrei men egin diezaioketen estratejiak / artefaktuak.

Gupidarik gabe aurrerantz, barrurantz. Positiboki eraiki, iraganari gainjarriz.

Gure gorputzak kolokan jarriz soilik jarri ditzakegu besteenak kolokan.

Deserosotasuna, mugimendua. Bide aldaketak, zalantza, gatazka.

Arteak hemen leku posible bat euki lezake? Akaso?

Nik “erresistentzi artefaktu mugikorrak” eraikiko ditut.

Zeozer eraldatzekotan, zeoer piztekotan.

Piztia esnatu dadila!
Zerbait eraldatzeko nahiagatik,
desioagatik, mugitzen gara.
Gatazkengatik.
Inertziaren kontra.
Eramate pasiboaren kontra.






Argazkiak: Un gramo de FE. Serigrafia. 2017 Galiza.

# HIRU OHAR. ERREBOLTA BAT, SUBERTSIOA ETA AZPIBERTSIOAK

Camilo Torres Zorrilla

**TXOSTENA** • Artistek bilatzen ditugun rola, formak eta helburua lantzen ditugunean, etorkizuna ekartzen dugu gure jardunbidera, nahita edo nahi gabe, eta askotan iraganera jotzen dugu, baita etorkizun den denborari buruzko fikzioetara ere, mugitzen gaituzten ideiak edo printzipioak adierazteko.

Orainak azterketa eta gogoeta ariketa bat eskatzen digu ez mugitzetik ekintzara pasa gaitezen, konpromiso kolektiboan oinarritutako praxi baten bidez, egungo botere harremanetan esku hartu edo horiek iraultzeko gai izango dena; hartara, hautsi ahal izango ditugu erabateko Kapitalismoaren aroan mundu garaikidearen bilakaera lotu egiten duten oinarriak.

Gertaera historiko banak baldintzatu bide dituzte krisian diren bi herrialdetako gertaerak. 2015eko azaroko Parisen jazotako atentatuen ondoren, François Hollande frantses agintariak, itxura batean lasaitasunez, hauxe baieztatu zuen: "lehendabizi segurtasunerako ituna eta, gero, egonkortasunerako ituna. Frantzia gerran da". 2019ko urrian, Sebastián Piñera Txileko presidenteak eta enpresaburuak, herrialde horretako lehen herri manifestazioen ondoren, hauxe adierazi zuen:"etsai boteretsu baten kontrako gerran gaude, errukigabea, ezer eta inor errespetatzen ez duena, eta indarkeria mugarik gabe erabiltzera prest dagoena".




**1.- Iraganari eta berehalako orainaldiari buruzko oharrak.**

[Dardara kolektiboa, performance keinu bat]

-2015eko azarotik, Frantziako hiriburuan izandako jihadisten erasoaren harira, indarkeria eguneroko errealitateko zati izatera pasa zen, eta aitzakia borobila izan zen "bestearen" eta desberdintasunaren beldurraren kultura globala ezartzeko.

-2019ko urritik:"Zergetan kale egin, ez ordaindu, borrokatzeko beste era bat"da ehunka ikasle gaztek harrotutako aldarria, Santiago de Chileko metroan erresistentziako askotariko estrategiak sortu zituena. Ekintza horiek, gizartearen gehiengoak jarraituak, askatu egin zuten Txileko sistema neoliberalaren 30 urteko abusuek isilarazitako amorrua.

-Aho bateko astinaldi erritmikoak katarsi orokorra eragiten du, dardara kolektiboa, eta zapalketaren hesi sinbolikoa irekitzea lortzen du. Bortxatutako gizarte gorputzaren ekintzak eta performance keinuak errebolta bati eman zioten hasiera, gaurdaino herrialdeko egituretan errotiko aldaketak bilatzen dituena.

**2.- Orainaldiari eta berehalako etorkizunari buruzko oharrak.**

[Gerran]

Estatua gerran jartzeak hauxe esan nahi du:

-Frantzia, 2015eko azaroa: Charlie Hebdo aldizkariaren kontrako atentatutik bideratzen ari ziren segurtasun neurriak aktibatu eta sendotu ziren: larrialdi egoera, Schengen hitzarmena bertan behera utzi, mugetako kontrola berrezarri, 10.000 politika eta militar kaleetan, telefono entzuketak eta Interneten kontrola.

-Txile, 2019ko urria: larrialdi egoera, etxeratze agindua, 8.000 militar eta polizia kaleetan, sare sozialen eta Interneten zentsura.

-Biak ere diskurtso totalitarioen bidez adierazi dira, komunitatean berehalako arrisku apokaliptikoaren irudipena sortuz. Era horretan, herritarren mugimenduaren kontrako taktika erabiltzen da, gerran egotea eskala arazo bat bihurtzen da, konponbiderik gabeko gatazka aktiboa.

**3.- Etorkizuneko arteari / berehalako artearen etorkizunari buruzko oharrak.**

[El Negro, sorkuntza kolektiboa]

[Atzo]

-2010eko manifestazioetatik, el Negrok, Txileko kale txakur batek, poliziaren errepresiotik lagundu eta babestu zituen ikasleak, eta ezagun bihurtu zen martxetara joaten zirenen artean, 2017ko abuztuan hil zen arte.

[Gaur]

-El Negro egungo borrokekin konprometitutako askotariko kolektiboen zeharkako figura garrantzitsu bat bihurtu zen. Haren irudi herrikoiaren inguruko ikonografia landuaren bitartez, Negro Matapacos ospetsuaren subertsioek indarrean diraute Txileko eta atzerriko protesten iruditeria sinbolikoan.

[Bihar]

-Herria, haren adierazpenak eta sinboloak aldarri kolektiboan oinarrituz eraikitzen dira, aldarriak ahalmena baitu gizarte elkartasunaren etikara deitzen duen eraldaketa espazio bat sortzeko, politika eta kultura eszenategi berri bat ezartzeko helburuaz.

Eta biharko aukera horren aurrean,gure lanaren etorkizuna zein den galdetzen dugu, gure pentsamendua norantz bideratzen dugun, eta zeregin artistikoa norantz amaitzen duen. Kinka batean mugitzen gara: erresistentziaren aukerari heldu, presako proposamen baten bidez, bazterrean egonez, ekonomia ordenaren aurka, ala, aldiz, azkenean, konbergentzian eta "asmo oneko"sistema demokratikoarekin hitzartzearen logikan amaitu?

# PERFORMING TRANSITIONS: SORTZEN ARI DIREN ESZENATOKIAK PERFORMANCE-FIKZIOZ EMANAK

Markel Cormenzana & Raquel Mora

**EKINTZA** • TAZ (Aldi Bateko Gune Autonomoa) ekintza-esplorazio bat da, eta adimen haragiztatuak eta performanceak herritarrak etorkizuntzeko euskarri gisa duten ahalmenari erreparatzen dio. "*Etorkizuna pixkanaka ezeztatzen den*" historiaren eta gizartearen une batean gara, klimaren eta gizarte eta ekonomia ereduaren krisiak agerian uzten dute ez garela gai etorkizun ofizialaz bestelako irtenbideak imajinatzeko eta, orduan, baieztatu egin nahi dugu arteak baduela sortzen ari diren etorkizunak aurrez itxuratzeko ahalmena.

Artearen historia (eta magia) hirugarren espazio bat bilakatu da, zientzia eta erlijioarekin batera, eta nahi beste fikzio utzi dizkigu, eta horietako batzuk politikoki sublimatu dira gure egungo errealitate gisa. Hain zuzen, artearen liluramenduak, fedegabetasuna bertan behera utziz, narrazioaren, politikaren eta ekonomiaren makineria aktibatzen du eta, hartara, makineriak fikzio horiek gauza ditzake. Hori dela eta, arteak dakarren irudimenaren (edo narkotikoa den) indarraren kontrola izan da botereak bere narrazioak eta profezia autobeteak babesten saiatzeko erabili duen bitartekoa. Proiektu neoliberalak eta mito teknoutopistan eta singularistan oinarritutako bere erretolikak ezin hobe adierazten dute gure iruditeriak kolonizatzeko ahalegin hori.

Egun, inoiz baino gehiago, berriz bete behar dugu artearen espazioa, garatzen ari den etorkizungabetzeko prozesuei aurre egiteko, gizarte-arloko ikasketaren bitartez eta artea eguneroko bizitzan birkokatuz; hartara, hobe jantzita egongo gara bizitzea merezi duten munduak imajinatu eta aurrez itxuratzeko. Mapa lurralde bilakatu nahi duten narrazio totalizatzaileen aurrean, gure ustez, beharrezkoa da mapako hedadura tolestu neurrigabeak esploratzea, *eutopia* posibleetan zehar ibiltzea. Hori bai, mekanismo horiek ontasun komunaren zerbitzura jarrita berreskuratzeko, logozentrismoa gainditu beharko da ere, eta, era horretan, hala praktika somatikoa eta performancea nola errealitatea ulertzeko forma haragiztatuak eta pertsonartekoak bihurtuko dira geure buruaz pentsatzeko erdigune berriak.



Interbentzio hau artean amaitu gabeko ikerketa baten zati bat da, HOLON gidari duena. 2018tik, ekintzen ikerketa laborategi batean ari da, Performing Transitions (PT) deitua, haren helburua izanik arteak duen ahalmen bat esploratzea: zibilizazio moduan aurre egin behar diegun oso beharrezko gizarte eta teknika trantsizioetan parte hartzekoa.

PTk adimen haragiztatuak, praktika somatikoa, performancea eta jolasa diseinuarekin eta artearekin batera ehuntzen ditu, orainaldiari askotariko ikuspuntuetatik kritika bat egiteko, historia(k), orainaldia(k) eta etorkizuna(k) irudikatzearen eta ekitearen inguruan. Proiektuaren asmoa da osagarriak baina sarritan kontraesankorrak diren jokabide, gizarte, teknologia, politika eta kultura bilakaeretan ezagutza sendotu eta sortzea, talde eta gizabanakoen eragiletza inspiratu eta hauspotzeko, gizarte, ekonomia eta kultura arloko trantsizioen ikuspegi hobetsietara bidean. PTk aukera ematen digu iluntasunean jolasteko eta ezezaguna dena besarkatzeko; performance, irudimen kolektibo, mitologia eta mundu ikuskeren muga berriak esploratzeko bitarteko bat da, eta horiek, berriz, argiztatu egiten dute bestelako etorkizun jasangarriagoetarako bidea.

Inmersiones 2019n garatutako performance ekintza hau bestelako orainaldi/etorkizun batean kokatzen da; bertan, ausazkotasunak pertsona jakin batzuen eskuetan utzi du erabaki biziki gatazkatsu bat. Horretan zehar, gorputz sozialetik, eszenategi horren inplikazioak arakatuko ditugu, auzitan jarriz talde eta gizabanakoon eragiletza egungo politikako erakundeen bilbean.

## ETORKIZUNA DANTZATZEN

Angela Milano & Koldo Arostegui

**EKINTZA** • Ekintza honek etorkizuna dantzaren bitartez irakurtzen du, espazioan bertan badauden erantzunak transmititzeko bitarteko gisa hura erabiliz.

Ariketa hori Alice Chauchat koreografo eta dantzariak egiten duen *Oracle Dance* delakotik eratortzen da, dagoeneko Jenifer Laceyk izen bereko ikuskizun batean erabili duena, eta guk, oraindik orain, Carolina Mendoçaren laborategi batean praktikan jarri genuen. Alegia, geureganatu egin genuen tresna hori, balio baitigu modu arin eta dibertigarri batean izan daitezkeen artearen askotariko etorizunez hitz egiteko; izan ere, horiek hemen daude dagoeneko, espazioan eta gure, emakumeon, baitan. Era horretan, elkarrizketa bat has dezakegu, eta bertan bertaratu guztiek etorkizuna topaketa honetan eta teilatu baten pean entzun ahal izango dugu.

Orakuluak, emakumeotako batek edo beste batek gorpuztuak, egingo zaizkion galderei erantzuna emango die eta, horretarako, bere ninfaren dantza irakurriko du, aldi berean pertsona batek edo gehiagok gorpuztuko dutena. Ninfak, dantzaren bitartez, pertsona arruntek hauteman ezin dituzten erantzunak bideratzen ditu.

Ekintzaren hemen eta orainean, uztartuta bizi dira iragana, orainaldia eta etorkizuna, gorputzak gara ezin bestean eta, historiak zeharkatuta, dagoeneko baziren, orain diren, eta izango diren espazioetan bizi gara. Oraina da denaren edukitzailea, puntu nimiño batetik existentzia osoa zabaldu ahal balitz bezala. Askotan, zer egin jakingo ez bagenu bezala bizkarreratzen ditugu galderak, askotan ere erantzunak gure inguruan ditugunean. Horregatik, galderak adieraztea eta erantzunak dantzatzea proposatzen dugu, erantzunok espazioak guri helaraztea utziz; eta pentsatzea dantza bitarteko bat dela hor dagoena, elkarrekin gauden etorkizun baten aukerak eta etorkizuneko arte bat osatzen duten nahiak ulertzeko.

Tresna honek mugarik gabeko, edo ezarri nahi ditugun mugak dituen, dialogo bat hasten lagun diezaguke, gure irudimen kolektiboa hegaz egiten uzten eta, gorputzez zein hitzez, etorkziunerako eta arterako desio dugun hori agerrarazten.



*The Pleiades*, Elihu Vedder (itd. The Metropolitan Museum).

## TEMISTOKLES-GEMINI

Javier Rodríguez Pérez-Curiel

**EKINTZA** • Atenastarrek Delfosko orakulua kontsultatzera mandatariak bidali zituztenean, orakulu beldurgarria jaso zuten hiriaren patuari buruz. Atenastarren artean, Temistoklesek uko egin zion etsitzeari eta iragarritako patua sinesteari, baina ikusi zuen giza arrazoia ez zela nahikoa atenastarrak egitea komeni zenaz konbentzitzeko. Bakarrik arrazoi jainkotiarrek konbentzi zitzaketen. Mandatariak bidali zituen berriz Delfosko orakulura; bada, kontsultatik augurio baikorrik gabe ez itzultzeko eman zien mandatua, ikusirik Atenasen kontrako pertsiarren erasoa guztiz saihestezina zela. Apoloren erantzuna, berriz, hauxe izan zen:

> *Palasek ezin du Zeus, Olinpoko jainkoa, baretu. Nahiz eta bere tonu guztien bidez eta abileziaz, erreguka ari zaion.*
> *Hala ere, erantzun berri bat emango dizut, altzairua bezain zurruna.*
> *Begira, Zekropearen lurra eta Ziteroi augustuaren haranak duten guztia hartzen dutenean, Zeus, begirada zorrotzekoak, zurezko horma bat esleituko dio Tritogeniari, hura izango da zuretzako gotorleku bakarra (baina garaiezina), eta salbamena ekarriko dizkizu zuri eta zure seme-alabei. Hori bai, zu (hori batez ere) ez geratu sorgor aldameneko kontinentetik datorren lurreko armada erraldoiari zain; aldiz, egin atzera; eman bizkarra. Egun batean, egon seguru, aurre egingo diozula.*
> *Ai Salamina zerutiarra! Zuk suntsituko dituzu emakumeen fruituak, dela Demeter barreiatzen denean, dela biltzen denean!*

Zurezko hormaren nolakotasunaren inguruan luze eta zabal eztabaidatu ondoren, Temistokleren ikuspegia nagusitu zen: hormak trirreme itsasontzien flota esan nahi zuela, eta ez Akropolia (garai hartan, eraikinak zurezkoak baitzituen artean). Atenastarrek hiria abandonatu zuten pertsiarren aurrean, eta horiek, berriz, hura suntsitu, baina atenastarrek kanporatu egin zituzten, eta hiria berreraiki, itsasoan garaitu baitzituzten pertsiarrak haien trirremeen bidez Salaminako batailan.



Orakuluen manipulazio politikoa hark hirien artean zuen ospearen emaitza izan zen, dudarik gabe. Haien bitartez, jainkoek hiriko bizitzan parte har zezaketen, eta haren kanpo-politika baldintzatu eta, batzuetan, baita barnekoa ere; baina, alderantziz ere, elkarren aurkako alderdiek hots ospetsu horiek baliatu zituzten beren helburuen arrakasta segurtatzeko. Aldiz, greziarrak, ikasienak ziren taldeak gutxienez, muzin egin zieten gero eta gehiago iragarkizunei, susmoa baitzuten presio-talde bati edo besteri mesede egiteko esaten zirela profezia batzuk, santutegietako apaizen gainean eragina izatearren.

Ikus Proyecto Gemini [2019] Pelikula osoak eta latino
Proyecto Gemini Pelikula osoa, gaztelania latinoz
Proyecto Gemini Pelikula osoa, gaztelania latinoz repelis
Proyecto Gemini Pelikula osoa, gaztelania latinoz pelisplus
proyecto Gemini Pelikula osoa, gaztelania latinoz mega
Gemini proyecto Pelikula osoa, gaztelania latino sekaraz online
Gemini proyecto Pelikula osoa, gaztelania latino sekaraz online gratis
Jaitsi proyecto Gemini Pelikula osoa, gaztelania latinoz
proyecto Gemini ikus Pelikula osoa, gaztelania latinoz 2019 Azpitituluak gaztelaniaz
proyecto Gemini-ikus Pelikula osoa, gaztelania latinoz 2019 [AZP GAZTELANIAZ] 2019
proyecto Gemini y apolo
proyecto Gemini cuevana
proyecto Geminis Cinepolis
proyecto Gemini jaitsi dohainik
proyecto Gemini Estreianldiko data
Ikus proyecto GEMINIS pelikula
proyecto Gemini es nyata
Gemini proyecto Mexikoko estreinaldia
Gemini proyecto Peruko estreinaldia
proyecto Gemini Aktore taldea
proyecto Gemini Txileko estreinaldia
proyecto Geminis Espainiako estreinaldia
Pelicula Geminis de albertina carri
Ikus Interneten Geminis Argentinako estreinaldia
Jaitsi Geminis pelikula anaien arteko maitasuna
Geminis Pelikula osoa Argentina
Geminis Pelikula osoa youtube
Geminis Pelikula osoa 2005
Proyecto Geminis Pelikula osoa, gaztelania latinoz
Geminis Interneteko pelikula dohainik
Geminis gizona pelikula
Geminis pelikula 2019
Geminis Interneteko pelikula
Proyecto Geminis pelikula
Geminis mega pelikula
Geminis man pelikula
Jaitsi Geminis mega pelikula
Geminis pelikula Interneten
Proyecto Geminis pelikula Interneten
Geminis ikus pelikula Interneten
Geminis 2005 pelikula Interneten
Proyecto Geminis pelikula osoa Interneten
Operacion Geminis pelikula
Proyecto Geminis pelikula wikipedia
Proyecto Geminis pelikula aktore zerrenda
Geminis pelikula aktore zerrenda
Geminis pelikula sinopsia
Geminis pelikula will smith trailer
Geminis pelikula ikusi
pelicula Geminis youtube
Geminis Zodiakoko zaldunak pelikula
Geminis pelikula 2017
Geminis 2005 pelikula osorik
Pelikula Geminis 2005 Interneten
Geminis 2016 pelikula

**Urtea:** 2019
**Hizkuntzak:** Latinoa
**Kalitatea:** TS-Screener (Zineman Grabatua, hori da oraingoz dagoen guztia, baina lasai, kalitate berriak igoko ditugu Internetera atera ahala).



Rubén Díaz de Corcuera-ren *Artea 2117. urtean* kontaketarako Iñaki Larrimbe-ren ilustrazioa.

## ARTE FIKZIOZKO KONTAKIZUN ILUSTRATUEI BURUZKO LEHIAKETA

Lehiaketa honen helburua da proposatutako gaiaren inguruko kontakizunen liburu baterako testu ilustratuak biltzea zen. Ilustrazioen lehiaketa bat ere deitu genuen, liburu honetan dagoeneko aukeratutako "El arte en el año 2117" eta "Ley del buen Arte (LBA)" arte fikziozko bi kontakizunetarako. Liburua hainbat liburu dendatan egongo da salgai 2020ko urtarrilean.

Arte fikzioa fikziozko literaturako partaide izango litzateke eta, oro har, fantasiazko literaturako zati da, batzuetan zientzia fikzio, terrorezko narrazio, eleberri beltz, polizia eleberri, umorezko eleberri eta bidaien edo/eta abenturen eleberriarekin gurutzatuz. Genero honek ezagunak edo ezezagunak diren beste generoen edozein "kutsadura" onartzen du. "Arte fikzioa" zientzia fikzioa edo science fiction jatorri anglosaxoiko izenaren kopia edo kalkoa da. Arte fikzioa generoaren beste izendapen bat fikzio artistikoa edo arte bidezko fikzioa izan daiteke.

Arte fikzioa, beraz, esan daiteke beste arte mundu batzuen proiekzio edo irudimenera bideratzen den narrazio genero bat dela. Literatura genero honetako kontakizunetan, gertaerak edo ekintzak ez dira benetakoak, baina bai egiantzekoak edo gerta daitezkeenak. Kontakizun horien egiantzekotasunerako oinarria estetika, filosofia, psikologia eta arteen teoria arloak izango lirateke, baina baita zientzia eta teknologia garapenaren bektoreak ere (fisika erlatibista eta kuantikoa, elektronika, konputazioa, irrati-telekomunikazioak, sare telematikoak, nanoteknologia, bioteknologia, medikuntza, genetika, robotika, bionika, etab.), eta aurreikus dezakegu horrek artearen paradigmetan askotariko ondorioak ekar ditzakeela (paradigmak iraungitzea edo/eta berriak sortzea). Arte fikzioko ekintzek edo argumentuek aukera sorta zabal bat landu dezakete: denboran zehar egindako bidaiak, izarretako bidaiak, utopia edo/eta distopia estetikoak, hondamendiek (adibidez, baliabideak agortzeak) arteari eta artistei ekar diezazkieketen ondorioak, teknologia oztopagarrien agerpena, roboten eta adimen artifizialen artea, gizateria zibilizazio estralurtarrekin topatzea, etab.

## INMERSIONES-EKO 12 EDIZIOAK

Artisten harrobia landuz

**2008-2019**

**12. edizioa burutuko duzue aurten. Nolako ibilbidea egin du egitasmoak 2008. urtean martxan jarri zenutenetik?**

Erronkaz, zailtasunez eta, jakina, poz ugariz betetako prozesua izan da. Urte hauetan, hainbat aldiz aldatu dugu egoitza, eta guztiz aldatu ditugu diru iturriak, baina denbora honetan guztian, zuzenean edo zeharka, hor egon garen pertsona talde batek jarraitu dugu, proiektuarekin denbora guztian inplikatuta. Talde horren bultzadak eutsi dio proiektu honi, ekaitz eta erauntsi guztien kontra. [...]

Kulturklik-eko elkarrizketa osoa: https://cutt.ly/9eNOHP5




















## 2019 INMERSIONES-EAN “BRIAN THE BRAIN”

Miguel Ángel Martín komiki-marrazkilari ezagunak “Etorkizuneko artea/artearen etorkizuna” tematikaren gainean azaroaren 14an Zas Kultur Espazioaren eskaparatean “Brian the Brain” bere pertsonaia ospetsuenaren marrazki bat egin zuen.












## ETORKIZUNEKO ARTISTENTZAKO TAILERRAK

Esperientzia zabala duten hiru artistek (Iñaki Larrimbe, Nerea Lekuona eta Jorge Salvador) beraien esperientzia partekatuko dute mahai gainean ezagutzak, aholkuak eta trikimailuak jarriz. Honez gain, parte-hartzaileek “in situ” egindako erakusketa kolektiboa koordinatuko dute eta erakusketa hau tailer bakoitzaren amaieran inauguratuko da.

Zein ate jo behar ditut artera dedikatu nahi badut? Nola lortu dezaket finantzaketa nire lanak ekoizteko? Zer egin behar dut nire lana ikusgai jartzeko? Nola jakin dezaket egiten dudanak kalitatea badu? Nola dokumentatu dezaket nire lana behar bezala? Zein espazioetan da interesgarria erakustea eta nola hel nahiteke beraietara? Egokia da erakustea ez badidate ezer ordaintzen? Nola funtzionatzen dute arte-galeriek? Zeintzuk dira aurkezteko deialdi interesgarriak eta nola izan dezaket beraien berri? Beharrezkoa da autonomoa izatea norbaitek lan bat fakturatzeko eskatzen badit?

Galdera hauek eta beste asko erantzuteko - Arte Ederretako fakultateetan normalean erantzuten ez diren galderak - bi tailer teoriko/praktiko jarri ditugu abian, elkarren artean independenteak, doakoak biak, egun osoan zehar garatzen dira eta 14-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude: “Etorkizuneko artistentzako tailerrak”.

**Non:** Zas Kultur-en (Kalejira 84, Gasteiz)
**Iraupena:** 7 ordu bakoitza.
**Ordutegia:** abenduaren 14an eta 28an, larunbatak, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.
**Hartzaileak:** 14-30 urte bitarteko pertsonak.
**Kopurua:** 15, izen-ematearen aginduagatik
**Prezioa:** doan
**Nola eman izena:** espaciozas@gmail.com helbidera mezu elektroniko bat bidali, bertan zure izena eta abizenak jarri, ikastaroan izena emateko zure motibazioa (paragrafo bat) eta izena eman duzun tailerreko data adierazi eta zure lan baten irudia erantsi.










## ARGAZKI LEHIAKETAREN IRABAZLEA

Etorkizuneko artea
Artearen etorkizuna

Nerea Lekuona



Ematen du hemen iraganeko artearen etorkizun posibleetako bat gauzatzen dela. *Kitsch*: irudikapen sendotua, esperientzia estetiko jada preskribatua (artelana haren plagioen eta kopien bitartez, aspertzeraino errepikatzen direnak). *Kitsch* dena: toki guztiz arrunta. Kitscharen kontrakoa, berriz, artelan berezia da, oso ezohikoa den zerbait, munduaren irudipena ikuspen gisa transmititzen diguna, eta ez errekonozimendu gisa (V. Sklovski), eta horren aurrean, ez dugu jakingo, hasiera batean bederen, zer pentsatu edo nola erantzun.

XX. mendeko artearen ikonoetako bat da Tatlin, eta bere Hirugarren Internazionalari buruzko monumentua da 2019ko Inmersionesen karteleko gai nagusia; hura malenkoniatsu altxatzen da Nerea Lekuonaren argazki irabazlean. Tipo horren aztarna bat bezala, zita hutsal bat, baztergarria. Horrek iragarpen moduko bat biltzen du: *kitsch*ak dena irentsiko du. Egungo berezitasuna *kitsch* izango da ere etorkizunean.




### ▸ 2008

- Iñigo Beristain
- Ana Nieto
- Leire Iparaguirre
- Ander Arenas
- Eduardo Alsasua
- Angela Palacios
- Arcadi Ballester
- Marta Gil Estramiana
- Endika Portillo
- Laura Nieto
- Arrate Remón Merino
- Sleepwalk Collective
- Ander Lauzirika
- Karmelo Bermejo
- Haizea Barcenilla
- Daniel Mera
- Alberto Sola Serrano
- Amaia Blanco
- Arrate Remón
- Nerea Lekuona
- Saioa Echevarria
- Patricia Fdz. Monge
- Jaizki Fontaneda
- Julen Agirre Egibar
- Ismael Iglesias Serrano
- Saioa Olmo
- Xuban Intxausti
- Elena Aitzkoa Reinoso
- Ane Miren Rodriguez
- Daniel Llaria
- Iñigo Cerdan Matesanz
- Colectivo Belcro
- Damián Rdz. Perez
- Taxio Ardanaz
- Alvaro Gil Soldevilla
- Proyecto Anamnese
- Erika Yurre
- Pedro Salgado
- Jennifer Estela Alvarado
- Iker Serrano
- Wiki-Historias
- Saioa Olmo
- Usoa Fullaondo
- Elisabet Hdz. León
- Amaia Gracia Azqueta
- Jose Antonio Pablos
- Ibai Leon Azkarate
- Miguel Angel García
- Arrate Rodriguez Martin
- Miriam Isasi
- Eduardo Hurtado
- Iban Arroniz
- Teresa Rubio
- David Martínez Suarez
- Juan Aizpitarte
- Espacio Abisal
- Beatriz Olabarrieta




### ▸ 2009

- Urtzi Ibarguren
- Iñigo Beristain
- Fermin Diez de Ulzurrun
- Usue Arrieta
- Mikel Belacortu
- Ivan Mata Tamayo
- Ula Iruretagoyena
- Iker Azurmendi
- Julen Cano Linazasoro
- Unai Requejo
- Estibaliz Losa
- Verónica Eguaras
- Alfredo Zubiaur
- Iker Serrano
- Iosu Zapata
- Fernando Goñi
- Jaime de Los Rios
- Sara Fernandez Morante
- Maria Jiménez Moreno
- Ruben Díaz de Corcuera
- Janire Nájera
- Eduardo Hurtado
- Manu Uranga
- Laura Siles
- Janire Sagasti
- Miriam Isasi
- Edurne González Ibañez
- Maite Mtz. de Arenaza
- Nerea de Diego
- Amaia Gracia Azqueta
- Jose Antonio Pablos
- Diego Soroa
- Leire Iparraguirre
- Gregorio Sánchez Pérez
- Jenifer Estela Alvarado
- Laura Diez García
- Asier Bejarano
- Elisabet Hdez. León
- Sara Campillo
- Miren Elisabeth Varona
- Mª Antonia Unamuno
- Erika Yurre
- Proyecto Anamnese
- Garbiñe Arroyuelo
- Beñat Villanueva Oses
- Ibai León Azkarate
- Elisa Arteta
- Hector Orruño Triguero
- José J. Quintana García



### ▸ 2010

- Miriam Isasi
- Amaia Arrazola
- Itziar San Vicente
- María Teresa Vélaz
- Nerea Goikoetxea
- Ander Lauzirika
- Ricardo San Segundo
- Samuel Metcalfe
- Factoria de Fuegos
- Sara Paniagua
- Fátima Uriguen
- Alejandra Bueno
- Mireya Martín Larumbe
- Zaloa Ipiña
- Oskar Ranz
- Laura Díez
- Angela Losa
- Diego Vivanco
- Gonzalo Nicuesa
- Zirika
- Valentina Torres
- K.M.B.
- Marta Mas
- Eriz Moreno
- Lezuri Ormazabal
- Endika Portillo
- Jorge Robredo



### ▸ 2011

- Colectivo Bola-Xtra
- Erika Yurre
- Ibon Salaberria
- Jesika Martínez-Alcocer
- Karla Tobar
- Naia Del Castillo
- Nerea De Diego
- Nerea Goikoetxea
- Tunipanea
- Zirika
- K.M.B.
- Ana Nieto
- Azoteas Vivas
- Eduardo Alsasua
- Eduardo Acebedo
- Elvira Palazuelos
- Julen Agirre
- Miriam Isasi
- Rodrigo Fuentealba
- Sara Paniagua
- Eva Alija
- Jaime de los Ríos
- Manu Pérez de Arrilucea
- Maria Salazar
- Roberto de Miguel
- Juan Ibarrondo
- Berta Lázaro
- Laura Marchante




### ▸ 2012

- Irantzu Lekue
- Juan Carlos Arango
- Elvira Palazuelos
- Rafa Munarriz
- Peio Izcue
- Ant Espacio
- Laura García
- Melodie Martín
- Fermin Díez de Ulzurrun
- Nalúa Barco
- Miguel Angel Pedroza
- Mawatres (J. P. Orduñez)
- Leyre Goikoetxea
- Iker Fidalgo
- Terri Florido
- Juan Ibarrondo
- Marta Gil
- Mary Zurbano
- Josune Martinez de Albéniz
- Ander Gillenea
- Gregorio Sánchez
- Ainhoa Ortells
- Miriam Isasi
- Bruno Ibáñez
- K.M.B.
- Ana Nieto
- Robert Waters
- Pau Figueres
- Ibai León
- Laura Marchante
- Unai Requejo
- Diego Vivanco
- Taxio Ardanaz
- Político Poético
- David Pavo
- Paco Ramos Zugasti
- Ibon Garagarza




### ▸ 2013

- Agustín García
- Xandra Villar
- Xabier Apestegui
- Rubén Castillejo
- Nerea de Diego
- Monika Lukin
- Miriam Isasi
- Malk
- Leyre Goikoetxea
- La Calderería
- K.M.B.
- Juan Ibarrondo
- Marta Gil
- Juan Aizpitarte
- Ivan Mata
- Iker Gomez
- Iker Fidalgo
- Iera Bajo
- Jaione Velez
- Fermín Díez de Ulzurrun
- Eriz Moreno
- Elvira Palazuelos
- Emilio Lizcano
- Eduardo Alsasua
- Eduardo Acebedo
- Jessica Salas
- David Fuente
- Bruno Ibañez
- Armar
- Ant Espacio
- Ana Nieto
- Ainhoa Ortells




### ▸ 2014

- Leyre Goikoetxea
- Taxio Ardanaz
- Belén Cerezo
- Laura Ruiz Sáenz
- Nora Aurrekoetxea
- Elisa Arteta
- Monika Lukin
- Karlos Martínez B.
- Los Santxez
- Zirika
- Onintza Etxebeste Liras
- Amaia Asategi Iturralde
- Iker Iñurrieta Santamaria
- Sandra Amutxastegi
- Daniela de la Fuente
- Kapone
- Pau Figueres
- Maria Fdz. de Viana
- Xabier Dobaran
- Alejandra Bueno
- Irati Eguren
- Amaia Gómez Marzabal
- Iker de Aresti
- Arianna Cereceda
- Nerea Lekuona
- Pili Aguado
- Rubén Castillejo
- Norabaty-Josune Rodríguez
- Aintzane Caamaño
- Xabier Dobaran
- Iñaki Saldias
- Natalia Albéniz



### ▸ 2015

- Isidoro Valcárcel Medina
- Saioa Olmo
- Zuhaitz Izarra
- Laurita Siles
- Arianna Cereceda
- Joseba Edesa
- Igor Rezola
- Fermín Díez de Ulzurrun
- Peio Izkue
- Mundina
- Mario Paniego
- Oier Gil
- Amaia Vicente
- Mirari Echavarri
- Político Poético
- Amaia Molinet
- David Pavo
- Modelos Operativos Abiertos
- Mar Domínguez
- Alberto Díez
- Karmelo Bermejo
- Terri Florido
- Nerea Lekuona
- Puy San Martín
- Mundina
- Jorge Salvador
- Iñaki Larrimbe
- Iker Fidalgo
- Rubén Díaz de Corcuera
- Arturo/fito Rodríguez
- Leyre Goikoetxea
- Iera Bajo
- Idoia Zabaleta
- Pau Figueres
- Rubén Bécares
- Asier Lasarte
- Natalia Albéniz
- Miriam Isasi
- Kiko Monzón
- Arturo Cancio
- Unai Zorriqueta
- Norabaty-Josune
- Diego Aldasoro
- Elisa Arteta
- Mercedes Álvarez
- Sandra Amutxastegi
- Josetxo Crespo
- Izaro Ieregi
- Ernesto Iriarte
- Javier Hernández Landazabal
- Iara Solano
- Loli Leizeaga




### ▸ 2016

- Joan Fontcuberta
- Abel Jaramillo
- Amaia Molinet
- Historia Kolektiboa
- Iván Gómez
- Magdalena Planas
- Álvaro Aroca
- Myriam P.I
- María Ptqk
- Nerea de Diego
- Iván Gómez Gutiérrez
- Terri Florido
- Ramón Churruca
- Myriam Petralanda
- Rubén Bécares
- Begoña Hernández
- Neønymus
- Enrique Flores
- Adrián Lis
- Alejandro González
- Alexandre Fernández
- Álvaro Aroca
- Amaia Molinet
- Ana Nieto
- Arantza Eziolaza
- Arianna Cereceda
- Atakontu
- Carlos Lalastra
- César San Millán
- David Brandon
- Enrique Silva
- Jennifer Custodio
- Jon Gil
- Josean Pablos
- Josué Yael Padilla
- Josune Norabaty
- La Comunidad
- Leyre Arin
- María Hernández
- María PTQK
- Mary Zurbano
- Nerea de Diego
- Nuria Pérez-Cárcamo
- Paula Carralero
- Ruth González



### ▸ 2017

- Francisco Ruiz de Infante
- Amaia Vicente
- Betisa San Millán
- Camila Téllez
- Rubén Castillejo
- Manuela Abasolo
- Ane Abarrategi
- Eduardo Hurtado
- Elvira Palazuelos
- Gustavo Romano
- Igor de Quadra
- Ignacio García
- Mario Paniego
- Iosu Zapata
- Laura Dronda
- Nerea Lekuona
- Josune Vélez de Mendizabal
- Eneka Aranzabal
- Iñaki López de Luzuriaga
- Cristina Arrazola-Oñate
- Ibon Sáenz de Olazagoitia
- Jorge Salvador
- Iñaki Larrimbe
- Maite Markuerkiaga
- Iker Fidalgo
- Arturo/fito Rodríguez
- Pili Aguado
- Anabel Quincoces
- Nerea Lekuona
- Rubén Díaz de Corcuera
- Txelu Balboa
- Natxo Rodríguez



### ▸ 2018

- Ana Longoni
- Ania González
- Horacio González
- Bego Antón
- Rakel Gómez Vázquez
- Beatriz Perales
- Oihane Iragüen
- Mariana Unda
- Miriam Isasi
- Raquel Asensi
- Belén Cerezo
- Lourdes de la Cal
- Sandra Amutxastegi
- Terri Florido
- Raquel Meyers
- Ana de Vicente
- Raketa Brokobitx
- Garazi Gorostiaga
- Idoia Zabaleta
- Moonshakers
- Álvaro Aroca
- Amaia Vicente
- Anabel Quincoces
- Blanca Oraa
- Jone Laspiur
- Marian Puertas
- Miguel Alfredo
- Pablo Abril
- Rurru Mipanochia
- Itziar Markiegi
- Oihane Ruiz Menéndez
- María Hernández
- Nieves Gómez-Feliu
- Inés Sebastián
- Iranzu Guijarro
- Txelu Balboa
- Beñat Garitagoitia
- Ramón Churruca
- Silvia Ayerra
- Flor Fernández
- Las vecinas
- Chus Gutierrez-Solana
- Manifiesto Pasionista
- Gaiga Proiektua
- Heiwa
- Javier Rodríguez Pérez-Curiel
- Jone Marquínez
- Jeleton
- María Ptqk
- Cristina Arrazola-Oñate
- Ibon Sáenz de Olazagoitia
- Jorge Salvador
- María Arambarri
- Nerea Lekuona
- Eneka Aranzabal
- Ernesto Iriarte
- Iñaki Larrimbe
- Arturo/fito Rodríguez
- Janire Orduna
- Iñaki Lopez de Luzuriaga
- Iker Fidalgo
- Pili Aguado
- Rubén Díaz de Corcuera
- Natxo Rodríguez
- Pablo M. Garrido




### ▸ 2019

- Amaia Molinet
- Juan Pablo Orduñez /Mawatres
- Irati Inoriza
- Javier Rodríguez Pérez-Curiel
- Mikel Arbiza
- Izaro Sola Gainza
- Raquel Mora
- Markel Cormenzana
- Alizée Armet
- Pablo Martínez Garrido
- Camilo Torres Zorrilla
- Ángela Millano
- Koldo Arostegui
- Susana Viñolo
- Paula Estévez
- Jorge Salvador
- Nerea Lekuona
- Sofía Moreno
- Jorge Luis Albeniz
- Ramón Quanta
- Sofía Neves
- Mariana Unda
- Mikel Erkiaga
- Yohnattan Mignot
- Edurne Herrán
- Enrique Flores
- Mary Zurbano
- Ernesto Iriarte
- Maite Choya
- Joxean Olazagoitia
- Ana De Vicente
- Virginia Lekuona
- Eloisa Montoya
- Iñaki Larrimbe
- Rubén Díaz de Corcuera
- Colectivo Redil
- Ibon Sáenz de Olazagoitia
- Anabel Quincoces
- Eneka Aranzábal
- Arturo/fito Rdz. Bornaetxea
- Cristina Arrazola-Oñate
- Maite Markuerkiaga
- Iker Fidalgo
- Laia Rodríguez Barinaga
- Pili Aguado
- Josune Urrutia
- Natxo Rodríguez Arkaute
- Iñaki López de Luzuriaga
- Enrique Flores
- Terri Florido
- Jon Mikel Rodríguez






# INMERSIONES XII

VITORIA-GASTEIZ 2019

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Artista Sortu Berrien XII. Biltzarra
XII Congreso de Artistas Emergentes del País Vasco y Navarra

2019ko azaroak 28, 29 eta 30 • 28, 29 y 30 de noviembre de 2019

## ERAKUSKETAK ETA HITZALDIAK • EXPOSICIONES Y CHARLAS

**OSTEGUNA 28 JUEVES** • 19:30 • ZAS Kultur (Corre, 84)

- "Inmersiones 2019" egunkariaren aurkezpena
  Presentación del periódico "Inmersiones 2019"
- **Hitzaldia • Conferencia**
  *"Caffeina d'Europa"* • Francisco Javier San Martín

**OSTIRALA 29 VIERNES** • 19:30 • ZAS Kultur (Corre, 84)

- Erakusketen irekiera eta sarien banaketa lehiaketaren irabazleei
  Apertura de exposiciones y entrega del premio a las ganadoras del concurso
- "Etorkizuneko artea. Artearen etorkizuna" argazki lehiaketaren erakusketa
  Exposición del concurso fotográfico "El arte del futuro. El futuro del arte"
- "Educacciones" erakusketa
  Exposición "Educacciones"

## BILTZARRA • CONGRESO

**LARUNBATA 30 SÁBADO** • 10:00 • Ortzai teatro (Pinto, 39)

- **Txostenak • Ponencias**
  - Mikel Arbiza
  - Alizée Armet
  - Juan Pablo Orduñez
  - Izaro Sola Gainza
  - Pablo Martinez Garrido
  - Amaia Molinet
  - Irati Inoriza
  - Camilo Torres Zorrilla
- **Ekintzak • Acciones**
  - Javier Rodríguez Pérez-Curiel
  - Markel Cormenzana & Raquel Mora
  - Ángela Milano & Koldo Arostegui
- **Bazkari kolektiboa • Comida colectiva** • 15:00 • ZAS Kultur (Corre, 84)
- **Solasaldia • Tertulia** • 17:00 • Zas Kultur (Corre, 84)
  Etorkizuneko artea. Artearen etorkizuna / El arte del futuro. El futuro del arte

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA · DEPARTAMENTO DE CULTURA
eremuak
AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz · Vitoria-Gasteizko Udala
Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA
atiza
INMERSIONES KULTUR ELKARTEA • ASOCIACIÓN CULTURAL